

ARGIA

JUANA ARANGUREN

«Etxekoandreak
etxea bezala kudeatu
behar du udala ere»

KONFINATUAK


Frantziak ezarritako
zigorrari uko eginda
berriro Iparraldean

J.I. IZTUETA

Zaldibitarren omenez
«Dantzarien maisu»
ikerlana idatzi du
Joxe Garmendiak


«GUK» TALDEA

«Bidez bide»
disco berria
autokritikaren
emaitza da»



EVA FOREST

«KAZETARIAK GERO ETA
SUMISOAGOAK DIRA»






Estudioa

Etxezarreta Baserria
•AMASA•



220 m² eta 6,8 metrotako altuera dituen gela nagusia. Harri eta zurez eraikia izateagatik, moeta guztietako grabaketarako akustikarik onena eskaintzen du

AMEK - G 2520 automatizatua den mahaiak
48 pista sinkronizatuak
24 pista analogiko + 24 pista digital



60 metro karratutako kontrol ROM bat



Disketxea

Paseo de los Arbustos 2

20.009 - DONOSTIA

Bulegoa 21.90.63 - 21.75.43 Faxa 21.93.2

Almazena: 46.29.64 Faxa: 46.29.64

- 6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.
- 8. Juana Aranguren, Plazandreok-eko zerrendaburua Donostian. «Etxekoandre batek bere etxea bezala gestionatu behar da hiria». MIKEL JAUREGI eta PELLO ZUBIRIA.
- 12. Astean zehar. XABIER LETONA.
- 14. Chirac eurosareetan harrapatua. XABIER LETONA.
- 16. Victor Badiola, «Arrantza politika zuzen barik Ondarroa hondoratu egingo da». XABIER LETONA.
- 18. Baionako karrketan egoitz-asignatuek protestaldia jarraitzen dute. Amaigabeko zigorrari uko. IXABEL ETXEBERRIA.
- 22. Numerus clausu barruti bakarrak. MIKEL ALDASORO.
- 24. Zer litzateke Euskal Herria pilotarik gabe? ARANTXA ERASUN eta MIKEL JAUREGI.
- 27. Eva Forest: «Adierazpen askatasuna ilusioa besterik ez da». AINHARA ZUAZABEITIA eta ARANTXA ERASUN.
- 32. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
- 36. Guk taldea, «Honelako diskoa egitea autokritikaren emaitza da». MAITE ARTOLA.
- 39. J.I. Iztuetaren omenezko «Dantzarien maisu» liburua idatzi du J. Garmendiak. «Iztuetak egiten zuen bat esan eta bestea eman». JON ARANO.
- 42. Zinema zabalaren eremua. RITXI LIZARTZA.
- 45. Argitalpenak. J.J. PETRIKORENA.
- 48. Irrati-telebista. AINHOA GERRA.
- 52. Aukeran. AINHARA ZUAZABEITIA.
- 56. Denborapasa.
- 58. Mugimendu sozialak bakearekin hara eta hona. TXEMA URKIJO.



POLITIKA: Ohizko alderdi politikoez gain, datorren maiatzaren 28an soilik emakumez osaturiko hautagaitza aurkeztuko da Donostian, Plazandreok alegia. Juana Aranguren da hautagaitza honen zerrendaburua. «Emakumezkoaren ahots propioaren» bila, emakumeak politika instituzionala egiteko garaia bazela adierazi digu./8

EVA FOREST: Hondarribian du etxea, Bidasoa errekarari begira. Bertan, liburu artean eta bere argazki maiteenak alboan ditugula elkarrizketatu dugu bizitza sakonki bizi duen emakume hau. «Operación Ogro» idazteko bizi zuenari buruz, Euskal Herriak jasaten duen errepresioaz, torturaren inguruan egin dituen ikerketek, emakumearen paper aktiboaz eta bi lagunekin orain bost urte irekitako Hiru argialetxeaz mintzatu zaigu. Fura bere txakur gaztearen zaunkek ez diote oztoporik egiten./27



MUSIKA: GUK TALDEA 1968-69 urteetara egin behar dugu jira, Guk taldearen sorrerara iristeko. Sarasola-Borda ziren orduan. Bostgarrena, «Bidez bidez», ekainaren hasierarako izango da kalean. Egindako ibilbide luzeaz galdetu diegu Uztaritzera joanda./36

ARGIA

astero etxean

ARGIAren harpidedun izan zaite

× ARGIA etxean hartzeak abantaila guztiak ditu

× Zenbaki guztiak jasoko dituzu, kalean baino % 20a merkeago

× Euskal Kulturaren Urtekaria etxera iritsiko zaizu

× ARGIAren eskaintza berezietan parte hartu ahal izango duzu

ORAIN ARGIAKO HARPIDEDUN EGINEZ GERO HAUETAKO KONPAKTO, BIDEO EDO LIBURU BAT ESKURATUKO DUZU

DOHAINIK



TTAKUNen KONPAKTOA

"EUSKALDUNEN AMERIKA" JOSEBA ETXARRI

"AINGERUAREN BIHOTZA" BIDEOA

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____

2. DEITURA _____ HELBIDEA _____

TFNOA _____ HERRIA _____

POSTA KODEA _____ HERRIALDEA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA _____

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15

LASARTE-ORIA 20160

KIOSKOAN BAINO %20a MERKEAGO

HARPIDETZA SARIAK (BEZ barne)
 Hego Euskal Herria 11.600 pza
 Ipar Euskal Herria 685 libera
 Espainia 11.600 pza
 Beste Atzerriak 15.100 pza
 Airez 23.850 pza

Batzuetan mugak ezer aldatzen ez OSO gustora irakurri dut zuen aldizkarian Iparraldeko musika eta rock taldeei buruz egindako artikulua. Eta, egia esan, egite bera gustatu zait gehien.

Mugak kendu omen dituzte, baina jakina da gurean muga horiek gauza asko bereizten dituztela eta hor daudela. Hegoaldeko dugu arlo honetan ere abantaila. Nekez otutzen zaigu Iparraldera begiratzea, baina hori bai, bizitzan behin erromeria egiten dugu: Pastoralak ikustera.

Iparralderako zuen begiradak poztu nau. Baina tristetu ere bai. Mugak gauza batzuetan ez gaitua banatzen. Musika-aren alorrean azpiegiturak Hegoaldean txarrak dira, Iparraldean ez daude; oso kontzertu gutxi antolatzen dira; ez dago lokalik... Hauexek dira esan nahi nituen 'zorioneko' berdintasunak.

JON ARTETXE

OIARTZUN (GIPUZKOA)

'Segurtasun' indarrak

ESTATUEN jarduerak, bere iraupen eta sendotasunerako, legeak —bere legeak— habestutako bitartekoak daromatza bere baitan, eta jarduera honek aurrez aurre egiten du topo hiritarren askatasun nahiarekin. Testuinguru honetan, azkenotan bata bestearen atzean ikus ditzakegun gertakizunek, edozein demokraziaren ahuldadea agerian uzten dute, esate batera, guk moduan gauaz gozatzea atsegin dutenen aurka, lokal eta espazio publikoetan inongo aitzakia barik erasotua izatean. Ez dago inongo arrazoirik pertsona armatuek —eta oraindik larriagoa dena, identifikatuak izan ez daitezten aurpegi estalitz— katxeatu eta beldurtu gaitzaten. Beste herritar askok ere horrelako gertakizunak nola salatzen dituzten ikus-



teko, goardia epaitegietako artxibotara jotea besterik ez dago.

Ezin dugu amaitu publikoki honakoa salatu barik utzi, alegia iragan maiatzaren 13an, gaueko 23:30etan El Cantabrico tabernan (Bilboko Kasku Zaharra), 'segurtasun indar bikainek' gurekin izandako jarrera desatsegina eta deitoragarria.

**NOEMI VIAN ETA BESTE
BOST SINADURA
BILBO**

«Goenkale»ko gidoilari

LEHENBIZI zorionak eman nahi dizkizuet orain arte horrelako telesaila egitearren, bai aktoreen partetik, bai euskararen partetik, bai gidoilarien partetik oso ona dela uste dudalako. Baina gauza on guztiek bere alde txarrak badiutuzte eta «Goenkale» ez da salbuespena izango.

Gidoilari zaretzen horiek, agortu al zaizue irudimena, edo Hegoameriketako *kulebroi* geza, motel, pipermin eta saltsa gabekoak imitatzea al zoazte? Esaidazue bestela, Hegoameriketako zein *kulebroitan* ez den agertzen paraplejiko bat. Xabierri ez zekioken beste gauzarik gertatu?

Ni, Xabier ez bezala, mediku baten axolagabekeriagatik bizi guztian gurpildun aulki bati lotuta egon beharko dut, baina zuek telebistak ematen duen podereaz eta «Goenkale»k lortu duen audientziaren bitartez, sala ditzakezue eguneroko bizitza arruntan ditugun arazoak eta trabak, adibidez eta bakan

batzuk esateagatik, edozein lokal publiko edo pribatutan sartzeko ditugun zailtasunak, eskailerak direla, ate estuak direla... Eskoletara gurpildun aulki baekin joateko kondizionamendu negargarriak, gero analfabetuak deituz, Eusko Jaurlaritzak kadirak erosteko ematen digun diru apurra, hori ematen digunean, lan eza hau guztion arazoa izan arren, gurekin jendeak tratatzera-koan duen portaera bi urteko umeak baikinan, haue ere poliki-poliki aldatzen doan arren, eta hamaika gauza gehiago.

Erabil ezazue bai, Xabierren papera horrelako gauzak salatzeke, baina ez orain arte bezala bere ezintasunean, arnasarik hartzen lagatzen ez dion amarekin, edo etxean egun guztian egon behar horrekin, hanken gainean ipini diozuen mantatxo horrekin... ezen gauza guzti horiek nire amamaren garraioak baitira.


**IDOIA URIGUEN
EIBAR (GIPUZKOA)**

JABEA: ZERLUKO ARGIA, S.A.L.
LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

HELBIDEAK
GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.pabiloia. 20160 Lasarte-Oria. Tlf: 37 15 45. Faxes: 36 10 48.
BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerria. 48010 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxes: 410 37 15.
NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerria. 31011 Iruñea. Tlf: 17 80 78. Faxes: 17 80 77.
IPARRALDEA: Harrobiko Etxea, 64122 Urruña. Fax-Tlf: 47 17 10

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.
ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.


INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA: Antza, S.A.L.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Turismo Departamendua



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Mundua zebilen Donostian, bitan

MUNDUA ibili zen larunbatean, maiatzaren 20an, Donostiako karriekatik ETari Jose Maria Aldaia aske utz dezala eskatzen. Mundua bildu zen Donostiako kaleetan Ezker Abertzaleak deituta Euskal Herria aske utz dezaten aldarrikatzera. «Mundua zebilen Donostian» esaten zuten gure gurasoek joan den asteburuko manifestaldi horietako bakoitzean baino askoz jende gutxiago ikusitakoan. Baina mundua bakarra izanik, bi munduk desfilatatu zuten Gipuzkoako hiriburuan larunbat-igandez.

Larunbatekoaren antolatzaileek, Gesto por la Pazek funtsean, Aldaiaren bahiketari fite erantzutea hartu zuten helburu, eta azkartasun horrengatik bezala prozesuan erakutsi duten protagonismoagatik kritikaren bat ere jaso dute, Joseba Egibarrena adibidez. Herri

Batasunak berea denbora errekor batean antolatu behar izan du, eta aintzinean dituen Ajuria-Eneko guztiei kaleran aurre emateko gai dela erakutsi du, berriro ere. «Egin-en «Kalea denonda» izenburua ipini duenak zerbait esan nahi zuen.


MANIFESTALDIEN asteburua inkestena ere izan da ordea, eta hauen emaitzen datuek zeresan handiagoa ematen dute larunbatean eta igandean Donostiatik zenbat milaka jende ibili ziren kontatzearen ingurukoek baino. Espainiari dagokionez, inork ez du da-

goeneko zalantzarik, PPK sekulako egurra eman behar diela sozialistei. Inkestek panoramarik beltzena erakusten diote PSOeri: bat ez beste autonomia guztietan galtzea baino okerragorik nekez gerta dakioko. Hor baino edozein emaitza hobe erabiliko du Ferrazeko aparatoak bere ahalegina zurrizteko. Baina datorren negurako hauteskunde orokorrak iragarritzat daude iadanik.

Euskal Herrian, Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ikusi ziren aldaketak iritsiko dira udal eta aldundietara ere. Egiatzko emaitzak inkeste-

«Mundua zebilen Donostian» esaten zuten gure gurasoek. Baina mundua bakarra izanik, bi munduk desfilatatu zuten Gipuzkoako hiriburuan

Baionako espetxean 1992a arte zuzendari izan zena, Richard Berlingieri, gartzelan sartu dute, lapurretagatik. Preso bati 5.000 libera eta espetxeari berari 150.000—3.750.000 pezeta— ohostea egozten diote. Apirilaren 11an gartzeláratu zutela jakinik, gutun ireki bat idatzi dio Gabi Mouesca IKko presoak. Baionan sartu zutenean bera tratatu zuen baino hobeki zainduko ote dioten opa dio Mouesca Berlingieriri gutunean. (Arg.: «La Semaine»).



takoetatik asko urruntzen ez badira behintzat, Gipuzkoa ez da gehiago izango «gobernatzeko zaila den lurralde» berezia. Leku bakoitzean dago bisagra edo konplikazioen bat. Iukoak denetan sendotzen dira, eta PSE/PSNk galdua du inongo estabilitaterik emateko ahalmena. Araban UA badago, Alliren CDN daukate Nafarroan, eta Jose Maria Gorordok nahastu ditzake bazterrak aspaldi EAJk bare-bare atxiki duen Bizkaiko hiriburuan. Eta konbinaketa guztietan, alderdi abertzaleen presentzia murriztuko. EAJ bakarrik igo omen daiteke. Bere buruek diote EAko ez dela inkestek iragartzen dutena haina jaitsiko, baina beherako joera ez dio inork konpontzen. HBren beherakadak bere horretan jarraitzen du: nagusigoa EAJrekin jokatzuz Gipuzkoan jarraitzen du indarreane, baina beste guztietan ahultze aldera egiten du.

ZERTAZ hitzegin ote zuten bost ordu luze Arzalluz, Corcuera, Benegas eta Bellochek, Madril ondoko San Agustin de Guadalix herriko jatetxe batean? GAL aferaren inguruan zerbait lodia egosten ari dela kalkulatu du zenbait, eta Arzalluzek berak Guardia Civilaren Intxaurrondoko kuartelaz hitzegin zutela eman du esplikaziotzat. Gai faltarik ez zuten izango mahai gainean, Aznar agintera hainbeste hurbiltzen ari den honetan, baina mahaikideen zerrendan Corcuera egotea nabarmentzekoa da.

Enrique Rodriguez Galindorena berri, gaur itzali eta bihar berpizten den saltsa bihurtu da. Orain gertatzen da Navajas fiskalaren txostena ez zela galdu, baina epaileen eskuetara ere ez zela iritsi eta horregatik ezinezkoa dela Granados fiskal nagusiak esan zuen legez txosten haren ondorengo ikerketekin batera artxibaturik egotea. Fiskalaren txostenaren arrastorik ez da baina Guardia Civilaren erantzuna gorderik dago. Madrilatik zatorzela, lehen mendi bat pasata jaitsieran dago San Agustin de Guadalix. Baina ondoren dator Somosierra gogorra.

PELLO ZUBIRIA

ALLIOT-MARIE ETA LAMASSOURE ETXERA

Frantziako lehen ministrari berriak, Alain Juppek, Michelle Alliot-Marie eta Alain Lamassoure ez ditu gobernu berrian hartu. Lehenak Kirol eta Gazteria saila zuen bere gain eta bigarrenak Europako Aferena. Diputatu izateko lehian hasi beharko dute ondoko hilabeteetan. Chirac lehendakari berriaren lehen gobernuan segiko du, aldiz, Francois Bayrouk. Hegoaldean harreman politikoak gizon horrekin eraiki behar zirela argudiatu zutenek atera dute arrazoina azkenean.



IÑAKI GOROSTIDIAREN TARTEA

BI MANIFESTALDI BERRIRO

«Subjetibotasunaren muga»

ASTE BURU honetan Donostian emandako bi manifestazioen aurrean -bata Aldaia jaunaren bahiketaren askatasuna eskatuz, bestea Euskal Herriaren askatasuna aldarrikatuz- bi gogoeta datoz ene burura. Aurrenekoa komunikabide gehienek birtartez jasotako informazioa, partziala eta gutxienezko objetibotasuna azaltzen ez duena. Asteburua Madrilen igarotzea suertatu zitzaidanez prentsaren leihora jo nuen gertatutakoaren berri jasotzera. Distantziak gertaerak aztertzeke beste parametro edo ikuspegia ematen duela gogoan izanez, Puerta del Sol-en Egin eta El Pais erostea erabaki nuen igande goizean gertakizunen gutxienezko irudi bat izateko. Azalak irakurtzea besterik ez nuen egin txundidurak jota utzi ninduean. Asteazkenean zehar manifestazio kopurua gonparatzearen aurkako jarerak tartekatzen ziren bitartean, El Paisen azalak zihoen 70.000 euskal herritar elkartu omen zirela Donostiako kaleetan Aldaiaren askatasuna exigituz. Eginetik, ordea, 20.000 besterik ez omen zirela bildu. Beraz, 50.000 herritarren 'zuloa' Donostiako kaleetan zehar. Ez da ene asmoa gonbaraketaren inertzia horretan erortzea, ezta zein den nere uestez kalkulatu egokiena, baina norbaitek -ko-

munikabideen eremuan zapuzturik murgiltzen direnek batez ere- argitu behar dit, nork justifikatzen duen horrenbesteko alde egotea bi kalkulatu desberdinen artean, eta zer lortu nahi den, alde batetik eta bestetik, kasu honetan eta besteetan, errealitatea distortzionatzen denean. Banezekien bai, objetibotasuna kazetaritza fakultateko liburuetan geratzen zela, baina subjektibotasunak mugaren bat izan beharko luke Euskal Herriko gatazkan.

Bestetik, ikuspegi politiko batetik burura datorkidan gogoeta zera da: eta orain zer? Izan ere, behin eta berriro eskema berdinak errepikatzen ditugu aspaldidantik. Norgehiagoka hauek -horrela uleritzen baitituz manifestazio bi hauek- arras ezagunak izateaz gain ez dute ezertxore konpontzen. Euskal Herri konplexu honetan gehiegi jotzen dugu kalera irteteko errekurtso errezerara, bihotza bero, kolore guztietako aldarrikapenak egitera, arrazionaltasunean oinarritzen den adimena lantzeari ekitea baino. Estatistiketan ez naiz oso trebea, baina ziur nago ez dagola mundu honetan urtean zehar kalera horrenbeste irtetzen den herririk. Herri honetan geure ideiak edo eskubideak kalean aldarrikatzen azaltzen dugun gaitasun hori bera irudimena zein adimena lantzen adieraziko bagenu, agian zubia eta hesiaren arteko zirikitua aurkitua izango genukeen.

Iñaki Gorostidi

Elkarri-ko prentsa arduraduna.

Juana Aranguren, Plazandreok-eko zerrendaburua Donostian

«Etxekoandre batek bere etxea bezala gestionatu behar da hiria»

Estreinako, hilaren 28an soilik emakumez osaturiko hautagaitza aurkeztuko da Donostian, Plazandreok alegia. Juana Aranguren da zerrendaburua. Bilbon jaioa, 23 urte daramatza Donostian ofizios abokatua den honek.



«Plazandreok-ek emakumeok ahots propioa izatea bilatzen du». (Argazkia: Alberto Elozegi).

Zer bilatzen zenuen Plazandreok sortzearekin?

Idea orain bi urte sortu zen, Donostiako Talde Independiente Feministatik. Talde honek pentsatu zuen emakumeok politika instituzionalean ere parte har genezakeela. Nahikoa dela, gure ordua dela eta ordezkari politikoak izateko eskubidea dugula pentsatzen dugun emakumez osatua dago.

Plazandreok-ek emakumeok ahots propioa izatea eta ahots propioz jardutea bilatzen du. Kontuan har gaitzaten du helburu, hots, demokrazia areagotzea eta zabaltzea. Gu politikan sartzearekin demokrazia handiago izango da, partehartzaileagoa izango delako gure ahotsa politikara gehituko duen neurrian.

Aldaiaren babiketaren ostean eta alderdien erreakzioaren ondorioz, kanpainako bi ekitaldi bertan behera utzi behar izan dituzue.

Maiatzaren 13rako ekitaldia antolatua genuen eta Lasa eta Zabalaren gorpuak zerkartzatela eta manifestazioa zegoen. Hilaren 20an, aldiz, geldialdia egin zen eta ez

ziguten aurretik ezer galdu. Alderdiek mitinak goizez zituzten eta geldialdia arratsaldeko 3retatik aurrera egitea erabaki zuten. Inork ez zuen pentsatu, ordea, guk ekitaldia arratsaldeko 8etarako prestatua genuela. Eguerdiko 12etara aldatu behar izan genuen, horrek dakartzan arazo guztiekin. Ez gaituzte kontuan hartu.



«Politika berrikusi behar da, emakumeon ikuspegia gehitzeko». (Argazkia: Alberto Elozegi).

Emakumeak ikustezinak gairela dirudi.

Alderdi handien egituretara lotuta ez dauden talde edo ekimenekiko jarrera baztertzailer dagoela adierazi duzue orain gutxi.

Bazterketa handia dago. Legeak ezartzen dituen dohaineko tartek ez dizkigute eskaintzen, ez telebistan ez irratan. Bizirik betikoek ja-

rraitzea dakar horrek. Hiritar ekimen eta taldeena propaganda hutsa da, gero ez baitizue aukerarik ematen jendeak zu ezagutzeko eta zure alternatibak eskaintzeko. Alderdi handiek kontrolatzen dute politika eta ondorioz, ez dago tokirik beste ekimenentzat. Guri behintzat ahalik eta oztopo gehien jartzen dizkigute.

Bat zatozten alderdiren

baten bitartez zuen aldarrikapenak bideratzen saiatu al zarete?

Ezagutzen ditugun alderdientan inork ez du gure interesen defentsa asumitu. Ez gara inongo alderditan ordezkatuta sentitzen. Gure ordezkaritzaren % 100 eskatzen dugu, ez dugu % 30en-gatik borrokatu nahi. Gainera, nork ordezkatuko gaitu guk geuk baino hobeto?

«Alderdi politiko handiek kontrolatzen dute politika, eta ondorioz, ez dago tokirik besteontzat; ahalik eta oztopo gehien jartzen dizkigute».

Guztiak bitz egiten dute obizko alderdien krisiarri buruz, baina azkenean beraien dira funtzionatzen jarraitzen dutenak eta alternatibek ez dute aurrera egiten...

Bizitza politikoko polarizazioa eta gizartean dagoen haserrea dela eta, ez dago animo edo ilusio politiko handiegirik. Jendea politikaz ahazten joaten da, absentsiora eta boto zurira joz. Horiei egiten diegu dei, berritro politikaren ilusioa senti dezaten, politika baita gure bizitza erabakitzen duena.

Plazandreok alderdi ezkerditarrekin etsitako emakumezko zerrenda dela esanez gero, gezurra esango al genuke?

Plazandreok plataforma plurala da. Ez dugu gure burua definitzen, ez gara ez ezkerditar ez eskuintarrak. Ezkerrak eta eskuinak ez dute gure interesen defentsa beregain hartu. Emakumeen interesak beti bigarren maila batean jartzen dira, eta ez lehentasun gisa. Eta hori da nahi duguna.

Europako berrialderen batean zuena bezalako esperientzia baten erreferentziarik ba al duzue?

Gertuagoko esperientziarik ere badugu, Ermuan. 1987an emakumezkoen hautagaitza aurkeztu zen eta 20 botogatik ez zuten lortu ordezkaritza. Islandiako kasua ere hor

dago. Politika instituzionala egiteko Emakumeentzako Aliantza taldea eratu zen. Parlamentuan ordezkaritza lortu dute eta Reykjavik-eko alkatea ere taldekoa da.

Zer du Donostiak gai-nontzeko biriek ez dutena, zuena bezalako hautagaitza posible izateko?

Horrelako zerbait egitera animatu diren donostiar batzuk baino ez. Emakume askoren begirada Donostian jarria dago uneotan. Ordezkaritza lortu ala ez, ekimen hau martxan jartzea eta Plazandreak eratzeko gai izatea beste emakume batzuentzako adibide edo erreferentzia izango da.

Zein boto mota eta zein kopurutan espero duzue jasotzea?

Inkestak egiteko ahalmenik ez dugunez, ez dakigu zenbateko boto kopurua atera dezakegun. Hala ere, baikorrak gara. Kalera irteten garenean oso ondo hartzen gaituzte. Emakumeek politika egiteko garaia bazela esaten digute, eta gauzak aldatuko direla. Harrera oso ona izan da, baina hori botoetan nola islatuko den ez dakigu.

Emakume zein gizonezkoiei egiten diegu dei botoa emateko. Demokrazia inklusio sistema denez gero, ez dut uste inongo gizonezko aurrerako emakumeok ahots propioz hitz egitearen aurka dagoenik. Eguneroko bizitzako gure gestioaz eta zentzunaz baliatzen diren gizonezkoak, zentzun horren aplikazioaz balia daitezke bizitza politikoa.

Donostiako zein gobernu modutan egongo zinatekete prest parte hartzeko?

Aurkezten garen lehenengo aldia denez eta antzeko esperientziarik izan ez dugu-

T A N T O A

Plazandrea apostuan

Kanpainako karteletan bezalakoxea da Juana. Irrifarre zabal hori berezkoa du eta ez argazkirako imintzioa.

Lanari, eskuak zikindu eta hankak nekatzeko lanari, ez dio bildurrik. Ederki asko ikusi nuen hori duela dozena bat urte kide izan ginen beste hautes-abentura batean. Kartelak ezarri behar zirela? Juana kolaz lardatuko zen. Buzoneoa egin behar zela auzoz auzo? Juana ez zen eskakeatuko esker gaiztoko behar horretatik.

Baina neska ez zen peoitzarako bakarrik egina. Hitz errazekoa, era berean lastoa aletik apartatzen dakien pragmatika horietakoa zen, bizantinismoak jotako garai eta giroetan. Urtetan zerbait jorratu badu, feminismoaren ildotik etorritako pentsamendua eta literatura

izan da. Mugimendu horretan aspaldi murgildua, ez dakit nola moldatu den itxikeriak itotako taldeen sareetan ez trabatzeko. Izan ere, topikoa baino zerbait gehiago izan den feminista extu errearekin ez baitauka zerikusirik.

Plazerrei muzin egiten ez dien emakumea izanik, neguan elurretan eta udan hondartzan ondo egurastuta aurkituko duzu, hamaika bilera eta eginkizunek utzitako tarteak aprobetxatuz. Bizipozak erakargarri egiten du, eta hala, ez da harritzekoa inguruan lagunak biltzen dituen jenerokoa izatea.

Azkena ikusi nuenean, euskararekin burrukan zebilen Getariko jatorria duen bilbotar donostiartu hau; ez dakit ordutik zenbat aurre-



Elixabete Garmendia
ETBko kazetaria

ratu ote duen. Oztopo bat dauka: hiztun onegia izatea gaztelaniaz, derrigorrean kamuts gertatu behar zaion euskararen jabe egiteko.

Plazandreak-en gidari, ea nola ateratzen zaion apostua. Oraingoan jainera adina susmo sortzen duen abentura da, ez baita erraza emakumea ardatz duen hautagaitza irenstea. Susmoak susmo, ez luke paper txarra egingo Donostiako Udaltxean. Taldearen izenak berretzat propio jarria dirudi.

nez, itunen kontuak ez digu burukominik eragiten, nahiz eta jakin hauteskondeak eta geroko gakoa direla. Alderdiek gure interesak eta gaiak asumitzen dituzten neurrian egingo ditugu itunak. Ez daukagu lehentasunik, aldeez aurretik ez dugu inolr baztertzten. Batipat gai-nontzeko alderdietako emakumeei gauza asko planteatuko dizkiegu, beren alderdiei kasurik egin ez eta emakumeentzako hobekuntzak bultzatzen.

« Ez dugu gure burua definitzen, ez gara ez ezkertiar ez eskuintiarrak; ez batek ez besteak ez dute emakumeon interesen defentsa beregain hartu, beti bigarren maila batean jartzen dituzte »

Donostian emakumearen egoerak lehentasunezko zein eginbehar eskatzen ditu?

Aukera berdintasunerako departamentua eratu behar da. Departamentu horrek ekinbide-plangintza positiboa eratuko luke. Plangintza hori ez genuke guk diseinatu, departamentuak baidizik, ikusten diren beharren arabera. Badakigu zein diren behar batzuk, baina sakoneko azterketa egin behar da guztien berri izateko: adi-

bidez, etxebizitzan, ea familia-zama duten zenbat emakume ezin duten etxebizitza eskuratu. Garraioei dagokienez, garraioaren areagotzea planteatzen dugu.

Emakumearen etxe bat eratzea ere planteatzen dugu. Udal eraikuntza bat egon dadila emakumearen etxea izango dena, emakumeak bil daitezten. Emakumearen etxe horren barruan, harrera etxea izango litzatekeen lekutxoia egotea ere eskatzen dugu: tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak bertara joan daitezten, eta lagundu ditzaten.

Zergatik eta zertarako aukera-berdintasunaren kontzejalia?

Ekinbide-plangintza positiboa eratzea da kontua. Al-

derdi askok bultzatuko lukezela diote, baina hauteskunde kanpainan baino ez dute esaten, ondorenean ez baitute martxan jartzen. Behar horiek zein diren zehaztu behar da, sail bakoitzean konponbideak eskaintzeko. Politika berrikusi behar da, bere osotasunean, emakumeon ikuspegia gehitu ahal izateko. Emakumeak hiri honen populazioaren erdia gara, eta gure interesei eta eguneroko bizitzarekin zerikusia duten gaiak Udaletik ere ekin behar zaie.

Bizitza publikoa feminizatzeaz bitz egiten duzue. Zertan datza?

Udaleko edozein gairi ekiten zaionean, erabiltzaileen erdia emakumeak direla kontuan hartzea. Loiolako hizketaldi batean emakume batek esan zuen moduan, etxeokandre batek bere



«Emakumeak iskustezinak garelako dirudi». (Arg.: A. Elosgi).

etxea gestionatzen duen bezala gestionatu behar da hiria. Hots, lehentasunak zein diren eta behar garrantzitsuenak asetuta daudenean, orduan ikusi beste batzuk egin ahal daitezkeen.

Zein dira lehentasuna eman behar zaien donos-

tiar emakumeen behar oinarritzkoak eta zein alde batera utzi beharreko proiektu faraonikoak?

Lehentasunak sailez sail aztertuta behar dira. Ez dago nahikoa haurtzaindegi eta daudenak garestiak dira, etxeko asistentziaren gaia areagotu

behar da, adinduentzako eguneko egoitzak gehitu, etxetik kanpokoaz gain etxeko lanak ere banatu behar dira... Ezkontzen diren emakumeen erdiak ordaindutako lana utzi eta dohai-nekoarekin gelditzen dira, beraiek bakarrik egiten baitute. Ikuspegi publikotik ez dira kontuan hartzen emakumeek dohainik egiten dituzten lanak.

Proietu faraonikoei dagokienez, krisi garaian behar sozial handiei eutsi behar zaie. Baliabideak berbanatu behar dira, populazioaren gehiengoak ongi bizi dadin eta beraien beharrak ahalik eta ongien ase ahal ditzaten. Obra handiei ekiteko garai hobeen zain egon behar da.

**MIKEL JAUREGI
PELLO ZUBIRIA**

BILINTX

megadenda



- 800 m2
- Kultura eta Aisialdirako, denda kontzeptu berria.

- MUSIKA
- BIDEOAK
- JOKU HEZIGARRIAK
- ALDIZKARIAK
- ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA

**IGANDE
ETA
JAIEGUNETAN
ZABALIK**

Fermin Calbeton, 21 - DONOSTIA. Tf.: 420080 / Fax: 420388

H I R U M U N D U

■ ASENTAMENDUEN
ISRAELEN IRUZURRA

PALESTINAREN Askapenerako Erakundeak eta Israelek duela urte terdi sinatu zuten bake akordioak bere unerik larrienak bizi ditu. Israelek lur asentamentu berririk ez zuela egingo agindu zion EEBBetako gobernuari; eta bete egin du. Ez zuena esan ordea, eginda-koak zabalduko ez zituenik, martxan zeudenak geldiaraziko ez zituenik, edo egiten hasi barik baina aurrikusita zeudenak jada aurrera eramango ez zituenik. Beste esparru askotan legez, horra hor tranpa. Akordioak sinatu eta urtebetean, Israelek 670 km² herri bereganatu ditu. Arafaten protestez gain, orain arte inor gutxik kaleratu du israeldarren politikaren aurkakorik.

■ NATO-KO BURUA
EPAITEGIETAN


WILLY CLAES-EK, ez zuen oso ondo pasatu Belgikako Epaitegi Gorenaren aurrean. NATOn ere deserosotasuna nagusi da, izan ere 46 urtetan erakundearen idazkari nagusi bat inoiz ez da jarri epaile baten aurrean. Claesi, 1988ko Augusta kasuko milioiak dantzan dabilzkio inguruan. Sasoi hartan Claes ekonomia ministroa zen, eta bere orduko gobernu-burua jadanik espetxean dago. Jakina, errugabetasuna lehenbizi, baina ezin esan beretzat sasoiko nagusia espetxean izatea lasaigarriena denik. Bitxienetakoa, NATOko atzerri ministro batzuk —Espainiako Solana tartean— ematen dioten erabateko apoioa da. Harrigarria, baina nork daki etorkizunean norbera ere non eta nola egon litekeen?

■ TXETXENIARRAK
GARAITU EZINIK

DUELA bost hilabete Moskuk Txetxeniren aurkako inbasioa ekion zionetik, herri batek azken urte hauetan jasoduen eraso eta zigorrik gogorrenetakoa eutsi behar izan diote txetxeniarrek. Errusiarren erabateko nagusitasunaren aurrean, Dudaieven indarrek galdu dituzte jada hiri nagusienak baina, Mosku aurkakoa saltzen saiatzen den arren, oraindik euren eskuetan daukate Txetxeniako lurraldearen % 30 inguru. Alemania naziaren aurkako garaipenaren 50. urteurrenerako oztopen izan behar eiz zen Txetxenia, baina munduko potentzien 'presio gogorren' aurrean, Ieltsinek txetxeniarren aurkako eraso gogortu egin du. Kaukaso osoak matxinadak zer dakarren ondo ikasi dezan.



Hamalau urte koroarekin egin ondoren, Frantziako garai modernoetako Eguzki Erregea joan da jada. Zer gertatuko da orain Frantziak eta Alemaniak —Mitterrand eta Kohlek— eraikitako EBren zatiarekin eta beronen jarraipenarekin? Ideologiari begiratu, Kohlek Chiracekin hobeto konpondu beharko luke, baina Frantzia txiki geratzen ari da Alemaniaren aurrean eta horrek —alemanen aurrean ez baita amore eman behar— burua behar baino gorago altxatzera eramanezake.



Gizon azkarra

EZIN uka Klaus Kinkel gizon azkarra denik, gora eta behera egiterakoan bederen, ez baikara bere adimen kontuetan sartuko. Gorako bidean, 1991ean alderdi liberaleko ibilbideari ekin, 1992an jadanik atzerri ministroa zen eta 1993an alderdiko lehendakaritza bereganatu zuen. Beherantzakoari ere laster heldu dio, 28 hilabete ondoren, ekain hasieran FDPk egingo duen kongresuan bere kargua utziko baitu.

Funtzionaritzaren eskailetan egin du bere ibilbide politikoa, eta urtetan Hans Dietrich Genscher atzerri ministro mitikoaren gerizpean jardundakoa da. Berarekin zerbitzu sekretuetako burua izan zen Gerra Hotzaren garaian eta bere lorpenen artean RAFaren (Armada Gorriaren Frakzioa) aurkako estrategia nagusia izatea dago.

Alderdi liberalak bata bestearen atzean jasotako dandatekoen ondoren, barne presioei azkenean kasu egingez, lehendakaritza utzi du eta alderdia bera ere utz dezake. Oraingoan, dena den, bere azken eskailerara heldu bide da. FDPren azken eskailerak izan daitezkeen legez.

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Historia

DENBORAN zehar gertatutakoak benetan nolakoak izan diren jakiteko, zeinek eta noiz idatzi dituen kontutan hartzea ezinbestekoa zaigu. Giza sasoi bakoitzean berriz, batzuk dira egiak eta izen haundiko gertakizun eta pertsonen irudiak aldatuz doaz izandakoari garrantzia eman edo kenduaz. Iraganeko pertsona, ideia edo ekintzak mugiezinak dira, hor daude eta bakoitzak onartu, errespetatu, mespreziatu edo mirestu ditzake. Bizirik dirautenak berriz egokitu, aldatu, berraztertu genitzake, orriandik eginez dihardute-lako.

AZKEN aste hauetan esan daitekeen guztia esan da iragana eta orainaren artean dagoen Mitterrand presidente ohiari buruz. Berak historia liburuetan irau nahi omen du, asko dira hala ere leku hori merezi ez duela diotenenk. Ziur aski Carlomagnoen ohe kontuez, Richelieuren azpi joku eta gorrotoaz, Luis XIV. ren zikinkeriaz edo harrokeria pairaezinez, Napoleonek bere egiei egindako traizioaz... datu gehixeago bagenu, agian beste bat litzateke liburuetan emandako tokia. Zeinek imagina litzake Juan Pabli II.a komunean, Isabel erregina larrutan edo Balladur erabat mozkortuta?



JUANJO SAN MIGUEL
Kazetaria

MITTERRAND-EK bere lekua izango du historia liburuetan, 14 urtez munduko estatu indartsu eta aberatsenetako baten presidente izan delako besteak beste, lehen mailako protagonista mundua astindu duten gertakizunetan, Mendebaldeko historia politikoan egin diren ahalegin aipagarrietan, aro berrien antolaketan... Petainen garaiak, Aljeriako kontuak, hurbilenganako jokararak, agindu eta bete ez dituenak, boterearen erabilera... horiek ere historia dira eta liburu- etan daude. Baina lehen mailako buruzagi horiek ez dira hutsean eraikitako irudiak, herri bat dute atzean, aurrean, alde edo kontra, eta gehienetan herri horren ezinak, miseriak, ilusioak eta ezaugarri eder eta mespreziagarrienak bildu eta isladatu ohi dituzte. Mirrerrand ez da ziurrenera izandako eta etorriko direnak baino okerragoa edo miresgarriagoa, sekula aurkitu ez duen Jainkoa izan nahi badu ere.

Paris-Bonn ardatzaren aro berriaren hastapenetan

Chirac eurosareetan harrapatua

Bonn-Paris ardatz ospetsu eta eraginkorrak beste bidezidor batzuetatik abiatu beharko du aurrerantzean. Mitterrand eta Kohlek lortutako erritmoak oztopo ugariarekin egingo du topo, batetik EBren prozesuak berak ekarriko dituen zailtasunak —Maastrichteko Ituna, diru batasuna...—, eta bestetik Chirac sostengatzen duen Frantziako eskuinean Europako Batasunarekiko dauden oso iritzi desberdinek eragindakoak.

LEHENDAKARITZA bereganatu bezain laster, Chirac Helmut Kohl kanzelariarekin bildu zen Strasburgen Paris-Bonn ardatzaren garrantzia azpimarratuz, baina egoera ez da batere samurra. Europako Batasuneko estatuburu garrantzitsuenen bileran izan zen, elkar ezagutu

eta bakoitzaren lerro nagusiak azpimarratzeko lehen lan topaketa.

Zailtasunak agerian daude, Frantzia eta Alemaniaren arteko lerro arteko tirabirak handiak izan dira eta EBren eraikuntza eta zabalkuntza ereduak ere desberdinak. Berlingo Harresiaren eror-

ketak, Alemania ekialdera begira jarri zuen, eta Austria, Finlandia eta Suediaren sarrekek ere EBren ardatza ekialderatu egin du. Frantziak, Espainia, Portugal eta Italiarekin lotura handiagoak dauzka, geografikoak zein kultura arlokoak, baina baita estrategikoak ere, ar-

datzetik mendebalderantz tira egiteko bere sostengurik garrantzitsuenak dira eta.

Baina inguruko estatuen arteko zailtasunez gain, Chiracek kontentu eduki behar ditu baita Philippe de Villierssek gidatzen duen gaulismoaren barneko Maastrichten aurkako sektore hori. Bere lerroetatik hara joz ere, ezin ahantzi Le Pen eskuin muturreko buruzagiaren lerroetatik ere makinatxo bat boto jaso dituela. Hots, Bruselaren zentralismoak eta Maastrichteko Itunak, Frantziaren burujabetza mehatxatuta ikusten duen aire korronea bultzatu dute eta haize bolada horiek badute indarririk eskuinaren baitan. Chiracek oso kontuan izan ditu kanpainen.

Atzerri politikaren ildo nagusiak

JUGOSLAVIA OHIA. Chirac kanpainen jardun den denboran, Jugoslavia ohiko gerra indarberritu egin da, Eslavoniako serbiarren aurka Kroaziaren erasoak batetik, eta Sarajevoren aurkako erasoak bestetik. Ez da aterabiderik ikusten eta Jacques Chiracen galdera nagusia honakoa da: «Gure kasko urdinak, atera ala ez?». Frantziak 4.200 kasko urdin dauzka bertan, soldadu gehien duen

estatua da eta dagoeneko bertaratu zirenetik hogeita hamasei soldadu galdu ditu bertan.


ARMA NUKLEARRAK. NTP Ituna sinatu berri du oraintsu baina 1992ko apiriletik geldirik dituen entseiu nuklearrak berriro hastearen alde agertu da. Bere aholkulari militarren esanetan, beste hamar entseiu beharko lirateke euren ordenadore programak puntuan jartzeko.

ALGERIA. «Algeriarrek eurek topatu behar dute euren arazoan konponbidea», dio Chiracek. Ez dago ados Mitterrandek bultzatu gura zuen EBren kontrolpeko konferentziarekin.

ERRUSIA. Kalera begira Errusiak Txetxenian izan duen jarrearekin kezkatuta agertu bada ere, funtsean Ieltsinen erreforma prozesua eta bera ere laguntzeko prest dago.

Federalismoaren beldur

HORRELA ulertu behar da EBrekiko kanpainen zehar Chiracek izan duen mezu bikoitza, ofizialki egungo EBren bideetatik abiatzen dena, baina zalantza ziriak tartekatuz eta sakonean eredu federala baztertuz. Chiracek bere burua hurbilago ikusten du, Bavariako CSU-ren «Aberrién Europatik», CDUko federalista trin-



Chiracen nazioarteko lehenbiziko zalantzetako, Jugoslavia ohiko kasko urdin frantziarrekin zer egitea da, gatazkari oraingoz ez baitio irtenbiderik ikusten.

koengandik baino. Pierre Lellouche, Atzerri arazoetako Chiracen aholkulari garrantzitsuenetakoaren ustez, Aberrien Europa eta proiektu federalisten arteko zer bait gauzatu beharko litzateke. Horra hor Chiracen joko gaitza, batetik EB zabal-kunde azkarraren aldekoa da; ekialdeko estatuak agudo sartzearen aldekoa alegia, horrela federalizazioa indargabetuko litzatekeelakoan. Baina txanponaren bestaldea ere hor dago, hots,

nola egin aurre zabalkundeak bere baitan dakarren ardatzaren ekialderatzeari?

Zalantzak, ordea, ez dira Frantzian bakarrik, ekialdeko haizeek Alemaniako eurozutabeak astintzen dituzte eta Erresuma Batua —laboristak barne— Maastrichteko lokarria lasaitzeko edozein aukeraren zain dago. Hor daude kide berriak ere eta baita apurka bazterratzen ari diren mediterraniar-latioak. Ekainean Espainiak hartuko du seihileko

lehendakaritza, baina marea politikoa ez da datorren urtera arte etorriko.

1996an EBko gobernuen arteko konferentzia izango da, Europako instituzioak bermoldatzeko pentsatutakoa eta Maastrichteko Ituna dantzan jar dezakeena. Chiracek, subsidiaritatea kontuan hartuz Batzordearen zereginak birdefini daitezene gura du, Ministroen Kontseilua indartu eta hiru urterako Kontseiluaren lehendakaria izendatu. Hala-

ber, 1996an EB osoan bere instituzioen erreforma onartuko lukeen erreferenduma egitea proposatuko du.

Ordura arteko denbora du Chiracek, atzerri politikaren lerro nagusiak lehendakariak finkatzen baititu, eta horretan lagunduko diote Juppe lehen ministroak —orain arteko Atzerri ministroa— eta Herve Charette, seguruenik Atzerri ministro berria izango denak.

XABIER LETONA

Konpromezu Arduratsua Gipuzkoarekin

EAK ekintza konpromezu bat eta duten ardura politikoaren jabe diren autagaiak Gipuzkoa guztiko hiritarren zerbitzura jartzen dizkigute, zeintzuk jokabide zuzen eta garden bat erakutsi duten, etorkizun aurrerakoi bat lortzeko lanean jardun eta mota guztitako korrupzio eta botere gehiegikeriak salatzen dituzten



Victor Badiola, Ondarroako Altura Armadore Elkarteko idazkaria

«Arrantza politika zuzen barik Ondarroa hondoratu egingo da»

Ezin ukatu, Ondarroako arrantzaleek sasoi hobeak ezagutu dituzte. 1992an alturako 80 bat arrantzunzi zeuden; gaur egun 60 dira eta haien mastek modernizazioaren ekaitzari eutsi ezinean daude. Masta horiek zutik iraun dezaten ari dira Alturako Armadoreen Elkarte eta Victor Badiola. Markinan bizi eta beharra Ondarroan duen lekeitiarra.

Alturako sekorean untzien modernizazio beharra nabarmena da; ez al doa geldotxo?

Hasi ere ez da egin. 1994ko martxoan Eusko Legebiltzarak Arrantzaren Plan Estrategikoa onartu zuen, eta honek oso ondo zehazten ditu arrantzaren munduak dituen arazoak, baina planari dagokionez, orain arte ez da argitalpen bat besterik atera. Ez ei dago aurrekonturik, eta beraz aurrekontu barik nekez atera daiteke aurrera inongo planik. Kontu eskatzerakoan Jaurlaritzak aurrekontuekin arazo handiak dituela azaldu zaigu; EBko egiturazko fondoak gobernu zentralera iristen asko pasatzen dela eta gero hori

autonomietara pasatu behar da. Dena den, ez dugu ikusten diru-iturri berriak topatzeko ahalegin handiak egiten direnik, sektorea aurrera atera behar bada, finantziario iturriak topatu egin behar dira.

Diozunez, badirudi sektorea diru publikoarekin bakarrik atera daitekeela aurrera.

Laguntza beharrezkoa da, baina nik ez dut esaten armadoreak bere baliabideak jarri behar ez dituenik, eta horretan dago gainera. Arrantzunziak hor daude uretan, gainbalio bat dute, suntsitze prezioa, arrantza eskubide prezioa... eta armadoreek finantziario ekonomikoa segurtasunez



«Jaz egin zen Arrantzaren Plan Estrategikoa ona da baina ez du balio aurrekonturik ez badu». (Arg.: Marisol Ramirez).

ikusten badute dena arriskatzeko prest daude. Baina guk apustua egiten badugu eta % 18ko banku interesa ematen bazaigu, nekez lehiatu ahal izango naiz % 4koa duen frantziarrarekin.

Gakoa orduan interesean dago?

Lehenbizikoa finantziario ona lortzea da, eta ondoren kudeaketa hobetzea. Famili-entresaren kontzeptua gaintitu behar da, eta honek kudeaketa profesional se-

ria eduki dezala, urte bukaeran etekinak ikusi eta inbertitzen jarraitu ahal izateko. Ondarroan 12.000 pertsona bizi dira, horietatik 8.000-9.000 arrantza ustiatetik bizi da, eta politika zuzenik martxan jartzen ez bada hondoratu egingo da. **Modernizazioarekin ari zara, ez al litzateke berrikuntzarena etorkizunari lepotik beltzeko modua?**

Berrikuntzak askoz diru gehiago eskatuko luke, eta

Guk apustua egiten badugu baina %18ko banku interesa ematen bazaigu, nekez lehiatu ahal izango gara %4ko interesa duen arrantzale frantziarrarekin

guk gura duguna oraingo une txarra gainditzea besterik ez da. 2.000-3.000 milioi pezeta besterik ez lirateke behar, eta 3R planean 40.000 pezeta gastatu dira, emaitza aiosorik lortu barik gainera.

Industria transformazionalaren sorrera ere ardatz gisa hartu izan da. Nola eman behar dira pauso horiek?

Modernizazioaren ondorioz sor daitezkeen langile soberakinak, industria transformazional honetara bideratu beharko litzateke. Ondarroako -edo beste herri batzuetako- portuaren arrantza ustiaketara lotutako industri lurrak sortu beharko lirateke bertan industria transformazionala eta konterbatzaila jarri eta guztion elkar laguntzarekin arrantza errentagarri egin dezagun.

Danimarkan, esate batera, arrantza ekoizpenean 8.000 pertsona dihardute eta transformazio industriean 32.000 pertsona; hots, itsasora doan pertsona bakoitzeko beste lau portuan transformazioan ari dira. Hori da arrantza errentagarri egitea, ekoizpenaz jabetzeaz gain beste lau lanpostu zuzenak sortzen dituzu, gehi zeharkakoak. Holanda eta Alemaniako kasuak antzerakoak dira.

1996an Espainiak bere arrantza eskubideak berreskuratuko ditu; nola eragingo du honek Ondarroako alturako itsas-flotan?

Berez, 2003. urtean berreskuratuko behar ziren baina aurreratu egin ziren, printzipioz bi puntu garrantzitsuenak errespetatuz: bat bazterketa alboratzea, eta bestea 1983an Europako Komunitateko kideek onartu zituzten harrapaketa kuota errespetatzea. Hori 2003ra arte aldaezina da. Espainia eta Portugalek, 1986an Komunitatera sartzea, kuota horiek onartu behar izan zituzten eta, beraz, orain ere gure flotak urte osoko harrapaketa planifikatu beharko ditu; horrez gain, gure ekoizleentzat zigor eta kontrol bereziak daudela ahaztu ahal izango dugu. Halaber, egunero 40 arrantzuntzi Irlandako Baxera sartu ahal izango dira.

Europako zenbait estaturen interes ekonomiko sakonak ere salatuko izan dituzu, zeintzuk dira?

Arrantza aberastasuna dagoen kontinente-plataformak dituzten estatu horiek gure merkatua gura dute. Plataforma horiek dituztenez, horiek beraiek bakarrik ustiatzea gura dute, baina gero gure merkatuetan saltzeko. Nire arraina egiten dut, nire arrantzalearekin harrapatzen dut, baina saltzera zure etxera noa. Hori da euren elkartasuna. Hortik datoz eraso horiek, Kanadak bere eremua 200 miliatik 2.700era zabaltzeko agertzen duen asmoa... Helburua gure merkatua da.

XABIER LETONA


DIRUAREN HOTSA

Egoera berria, liskar zaharrak



STEON jakin dugu Estatu Batuen eta Japoniaren arteko merkatal liskarraren pasarte berria. Azken gatazka honen ondorio gisa, Amerikako erral- doiak japoniar salkariei mugasariak nabarmen igoko dizkie, horretarako arrazoiak japoniar merkatua Iparramerikako autoei irekitzeko negoziazioen porrota izanik.

Sakonago behatuz gero, azken hilabeteotako nazioarteko ekonomi bilakaerak aipatu pasartearen hurbilketa estuagorako aukera ematen digu. Aurtengo urterako iragarritako ekonomi pizkunde orokorra uste bai- no geldoago suertatzen ari da orobat. Hiru hilabete eskaseta proiektio makroekonomiko guztiak beharrezko berrikuspenera behartu dituzten ergain kateatuek Mexikoko finantza krisia dute abiapuntutzat.



Mikel Zurbano

EHUko Ekonomia irakaslea

FINANTZA krisipeko Mexikoko merkatuaren murrizketa gogorak, datoen hilabeteetan zorrotzagoa izango den inportazioen egundoko beherakada ekarri dute. Mexikok estatubatuar esportazio guztien %10 eskuratzen du. Honela, atzeraldiari aurre egiteko Etxe Zuriak egun estrategia bikoitza du kanpo merkararitza-ri dagokionez. Lehenik, dolarren jaitsiera zeinak pezeta ere eragina izan baitu duen. Debaluaketa honen bidez presio atzerakorak Europan nahiz Japonian berehalako eragina izan du. Bigarrenik, atzeraldietan egin ohi duen legez estatubatuar diplomaziak merkatal gerra piztu berri du beharrezkoak dituen merkatu gehigarrietara heltzeko.

ABIATU berri den Merkataritzaren Mundu Erakundearen bitartekaritza lanak ekiditen ez badu, Japoniarrekiko EEBBek heda dezaketen merkatal liskarren aro berriaren hastapena izan liteke, beraz.

Baionako karraketan egoitz-asignatuek protestaldia jarraitzen dute

Amaigabeko zigorrari uko

Maiatzaren 9tik hamasei presunak, orain arte frantses estatuan sakabanatuak zeuden egoitz-asignatuek, Baionako katedralean hetsialdia hasi dute. Denak euskaldunak, frantses justiziarekin inongo arazorik ez izan arren egoitz-asignazioaren zigorra jasan behar dute. Lan egiteko eskubiderik gabe ezin dira bizi.

MAIATZAREN 9an Baionako katedralera ailegatu zirelarik kezka ageri zen gizon eta emazte horien aurpe-



Maiatzaren 13an egoitz-asignatuek Baionan zehar manifestazioan irten zuten. (Arg.: Bob Edme).

gietan. Ez zen, dudarik gabe, joko baten hasiera baizik eta erabaki latz baten mementua. Etorkizunak zer ekarriko zien zuketen gogoan. Hitz gutti zituzten. Poza erakutsi nahi zieten elkartasuna ekartzen zieten lagunei, hordago berriaren aitzinean. Hor ziren, batzuk katedralaren barnean egunkariaren irakurtzen, besteak kalakan egun horiek prestatzen. Hasiera batean bertako

apeza aski kexu agertu zitzairen, komunetako atea ez zien ireki nahi ere. Alta, ziru dienez, erretorea jakinaren gainean zegoen, baina justu tenore horretan kanpoan zegoen.

Beste apez batzuk zeuden, ez zuketen horiek eragin handirik eliza horretan. Bat oso famatua, apezpiku zigortua, zapalduen alde sobera agertzen baita Jacques Gaillot. Eliza etxe han-

dia da, etxe horretan ere baina omen da denentzako toki bera.

Aterabidea aurkitu

FRANTSSES eta espainiar estatuen arteko elkarlana martxan jarri zenetik, tresna franko erabili dituzte, estradizioekin hasiz, militanteak Espainiako Poliziaren eskuetan utziz, auzi baten ondotik, gabe batzuetan. Psi-

«GALen lehen atentatuen ondotik gorde egin behar izan nuen. Legez bizi nintzen baina norbait banuen gibeletik»
ELOI URIARTE

kologo batek konta lezake egoera horiek jasan behar izan dituzten gizon-emazteek sufritu dutena. Horiek dira tresna politiko-polizial arruntak. Baina egoitz-asignatuekin frantses administrazioak atzeman duen aterabideak zorabiatzeko pasabidea dirudi. Hogeita bost egoitz-asignatuak dira frantses estatuan sakabanaturik, inongo eskubiderik gabe. Amasa hartzeko eskubidea baizik. Agerian ez dagoen logika batengatik euskaldun batzuk onartuak dira Frantziako estatuan bizitzeko, eta ez dute justiziarekin

«Hogeita bi hilabetez, zazpi polizia inguruan departamenduz departamendu ibili naute»

Eloi Uriarte Diaz de Gereñio, 56 urte, Sorraluzen sortua, 1974an Iparraldera etorria.

Zer egoera juridiko ezagutu duzu Iparraldera etorri zarenetik?

Klase guztietako egoerak ezagutu ditut. Hasieran *recepisse* delakoa lortu nuen, baina 1989 eta 91n kendu zidaten. Ondotik errekurtsoa egin nuen Estatuako Kontseiluaren aitzinean baina ez dut oraindik erantzunik izan. Hogeita bat urtez egoera asko eza-gutu ditut; zazpi urtez, kasu, lanean aritu naiz Iparraldean, legez. 1976an Alpeetara eta ondoren

Yeu uhartera eraman ninduten, 79an Perigueuxera, hortik Dignesera, Alpes Maritimes-ko departamendura, gero Britainiara, Douaira, Cambraira, hortik Pithiviers-era, Parisen bukatzeko.

Zerk eraman zintuen gordetzera?

GALen lehen atentatuen ondotik gorde egin behar izan nuen. Legez bizi nintzen baina denbora guztian norbait banuen gibeletik, jakin gabe nor izan zitekeen. Ez nuen beste erremediorik. 89an atxilotu eta komisaldegian hiru egun igaro ondoren egoitza asignatu zidaten. Ho-



geita bi hilabetez, zazpi polizia inguruan departamenduz departamendu ibili naute. 91ko maiatzaen utzi ninduten Parisen, aski laster errefuxiatu estatutua kendu zidaten eta geroztik, azken lau urte horietan han egon naiz.

inongo konturik, behintzat horien kasuz arduratzeko ez dago inor bizi diren pre-

feturako funtzionarioak izan ezik. Deliturik leporatzen ez zaizenez, euskaldun izatea

ote liteke hutsa? Urteak joan dira militante politiko horientzat ere. Nolabait bizi-modua egin dute egoera gero eta larriagotzen ikusiz, egiazko zama bihurtuz familiarendako.

Kontzertazio luze baten ondoren, kontatu digutenez, erabaki bat hartu dute, maiatzaren 6an presoan aldeko Parisko martxan iragarri zutena: Euskal Herrira itzuli denentzako aterabidea frantses administrazioak eman dezan. Azken egun

«Gure helburua Euskal Herrian bizitzea da»

Arrate Urresti, mutrikua-rra, 1992ko uztailaren 2an Angelun atxilotua

Atxiloketaren ondotik zer gertatu zen?

Bi egunez eduki ninduten komisaldegian eta bi egun horien buruan esan zidaten Limogesera joan behar nintzela, bestela preso sartuko nindutela. Familiarekin joan nintzen, derrigorrez finkatu zidaten hitzorduan aurkeztu behar bainuen bertako prefekturan. Hasieran hotel batean bizitzen hasi nintzen, gastu guztiak neronek ordaindu behar nituela. Hiru hilabeterako paperak eman zizkidaten, horietan idatzia zela

lan egiteko eskubiderik ez nuela. Beraz, inongo eskubiderik gabe.

Nola pasatzen zenuen eguna?

Hasieran oso luze, baina aurkitu nuen frantsesa ikasteko etorkinentzako eskola eta lagun oso onak egin nintzen Iran, Turkia eta Afganistango jendearen artean. Euskal Herriko egoera kontatzeko parada izan dut eta oso interesatuta zeuden. Pena handia izan dut jende hori uztean ezer esplikatu gabe, elkartasun handia aurkitu baitut jende horrengan. Kosta egin zitzaidan bizimodua eraikitzea han, baina gure helburua



Euskal Herrian bizitzea da, ditugun eskubide guztiak errespetaraziz. Horregatik gure eginbearra gobernuak jasanarazi nahi digutenari aurre egitea da. Hemen da gure lurra, ezer egin gabe ezin dezakegu jarraitu.

«Gure eginbearra gobernuak jasanarazi nahi digutenari aurre egitea da. Hemen da gure lurra»
ARRATE URRESTI

«Eskaleak baino okerrago utzi gaituzte»

Balentin Castellano. Donostian sortua. 37 urte. 1983an etorri zen Iparraldera.

Zer egoera ezagutu duzu hemen?

Lau urtez paperekin bizi izan naiz, lan eginez Hendaian, baina GALen atentatuak hasi zirelarik gorde egin behar izan nuen eta atxilotua izan naizenetik, duela lau urte, egoitzasignatu ninduten. Bakarrik gelditu nintzen urte batez eta berantago beste batzuk igorri zituzten, Abetxuko, Txabarri eta Pirrulo; baina hartu zituzten eta Hegoaldera igorri. Beste urte batez bakarrik egon naiz.

Zer diozu bizi izan duzunaz?

Eskaleak baino okerrago utzi gaituztela. Eskerrak Iparraldeko neska bat etorri zitzaidala Cahorsera apartamendua hartzen laguntzeko, bestenaz, zubi baten azpian. Frantsesez ere ez nekien. Hilabetean behin joan behar nuen prefekturara, ez zekiten sobera zertarako, agindua zuten, besterik ez. Epaitua izan nintzen Baionan, konfinamendutik jaitsi behar izan nuen horretarako, libratu ninduten, baina berriz ere Cahorsera igorri ninduten lan egiteko baimenik gabe. Cahorsetik ateratzeko debeku-



pean. Ez dut ulertzen zer nahi duten zigor honekin.

Nola sentitzen zara?

Haserre, oso haserre, eta frantses Estatuarekiko ilusio guziak galduta.

Euskal gobernuak zer-bait egin behar luke?

Euskaldunak garenez, nire ustez bai.

«Oso haserre sentitzen naiz, eta frantses Estatuarekiko ilusio guziak galduta»

BALENTIN CASTELLANO

bora bete dutenez geroz zergatik behartzen ote dituzte Euskal Herritik banotuz bizi? Ez diete lan egiteko eskubiderik ez eta nor-tasun agiririk ematen. Egoera ezin ulertua zait, zinez». Protestaldiak jarraitzen du, egunero protesta-ekitaldiak antolatzen dira Baionako karrketan, erantzun baten zain. Izan ere, zigor bat puskatu nahi izan badute, arrisku larriagoa hartzen zuten kontzientzian izan da, erran nahi baita mugaz bestaldean preso buka dezaketela. Errealitate latza. Maiatzaren 13an presoan alde Baionan antolatutako manifestaldiaren amaieran, presoan eskakizunak bete zirela jakitearekin, esperantza berria ikusi da begietan, protestaldia eramaten dutenen begietan eta haien familiakoenetan.

IXABEL ETXEBERRIA

horietan frantses administrazioak helarazi du Europako Herritarren Kartaren eskaintza, orain arte urtetan asignatu mdouan edo hiru hilabeteko paperekin bizi izan diren bi euskalduni. Hori ote da frantses administrazioak aurkitu duen aterabidea?

Eta orain zer?


EKINTZA horrek zenbaiten astintzea lortu dukeela di-

rudi behintzat. Anai Arteako partaide den Jean Fagoaga medikuarentzat oraingo momentua berezia da: «Badakizue gobernu aldaketaren sasoian garela, beraz aste bat izan dugu protestaldi hori aitzinerat eramateko. Orain arte ez da deus gertatu, noski bitzordua eskatu ditugu, suprefetarekin batipat, baina ez gaitu oraindik hartu. Ez omen da bor. deitzen du-

gularik. Horrek ere gorogotik hartu behar ditu aginduak, eta une bonetan gobernuak ez dago». Anai Arteak bitartekaritza lana egin nahi luke afera horretan, ulertzen baitu sakabanatuak ziren egoitzasignatuak erantzun bat eman behar zaiela.

Petto Olagariak, Zuraldeko erretoreak ere protestaldi horretan parte hartu nahi izan du, eta zergatia adierazi digu: «Preso den-

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO ARGIBIDE KAFEZALEAK



Arabika Kafeak bi multzotan sailkatzen dira, garbitze prozeduraren arabera, "garbituak" edo "garbitu gabekak". Horrek gauza bat adierazten du, mamia atera eta alea prestatzeko orduan ura erabili duten ala ez. Arabika Kafe garbituak dira KOLONBIA, JAMAICA, COSTA RICA, KENIAko kafeak... denak oso SUABEAK. Garbitu gabeko Arabika Kafe nagusia BRASILgo kafea da. BAQUE KAFEAK suabe...suabea



Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.

28an...

BEHAR DITUGU..

udal euskaldunak

udal zintzoak

udal intsumituak

udal herrikoiak

udal feministak

udaletik lana eta etxebizitza

udal ekologistak

udal abertzale eta ezkertzaleak

BOZKATU HERRI BATASUNA



EHU eta NUP unibertsitate-barruti bakarrari ekiteko prest azaldu dira

NUMERUS CLAUSUS BARRUTI BAKARRAK

N UP eta EHUko errektoreek Iruñean eta Leioan sinatu zuten elkarlanerako hitzarmen orokorrak haize berriak ekarri dizkio oztopoz beteriko unibertsitate-barruti bakarraren aldarrikapenari.



■ Maiatzaren 17an sinatu zuten bigarrenegoz hitzarmena bi errektoreek. (Argazkia: Xouse Simal).

NAFARROAKO Unibertsitate Publikoak (NUP) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) sinatu duten elkarlanerako hitzarmen orokorretik hizpide gehien barruti bakarraren aldeko konpromezuak eman badu ere, ezin ahaz daitezke gainerako atalak, hala-nola zientzia eta ikerketa arloak, akademikoa, kulturala nahiz hizkuntzaren normalizazioarena. 1993ko hitzarmenean

ezarri ziren elkarlanerako aukerak zabaltzen direla azpimarratzen dute unibertsitateetako agintariak, orduz geroztik hirugarren zikloko ikasleei bakarrik suertatu baitzaie errazago NUP edo EHU aritzea doktoretza, tesiak eta graduatu ondorengo ikastaroak burutzea.

Arlo akademiko soilari dagokionez, irakasle trukaketa arautzen da eta hainbat ikasketak-plangintzarako praktikak elkarrekin egitea aurriztatu da. Horrez gain, bi unibertsitateetako ikeritzaileak elkarrekin jardun dezaten aukera eta egitasmoen finantzaketa komuna

ere zehazten ditu zientzia atalak.

EHUk euskararen normalizazioan egin duen bide luzea kontuan izanik, NUP-koek bereziki interesgarri ikusten dute eremu honetan hitzarmena lortu izana, irakasleak trukatzeko aukera zabaltzeaz gain, UBiko egi-

■ Ibiltzeke bide luzea geratzen da, beraz, baina NUP eta EHU oinarri sendoetatik abiatu direla diote unibertsitateotako errektoreek

tasmoen koordinazioa, EGA azterketaren araudia eta argitarapen politika bateratua buburtzeko konpromezua hartu baita.

Gai akademikoen puntuan azaltzen da Unibertsitate barruti bakarraren aldeko proposamena ondoko idazkerarekin: «*Bi unibertsitateen artean barruti bakarra osatzeko aukera aztertuko da hitzartuko diren ondorioekin*». Unibertsitateko agintarien urrats honekin, nahiz eta ez izan, balizko egitasmo korapilatsu bati atek ireki zaizkio. Izan ere, gai honetan unibertsitatea ez da eskuduntzak dituen erakunde bakarra.

Zailtasunak ugari

BARRUTI bakarraren ekimena aurrera ateratzekotan oztopo ugari eta garrantzitsuak gainditu beharko dira. Itxaropentsuegiak lasaituarazteko moduko adierazpenak egin zituzten Goirienak eta Blasok Leioako ekitaldiaren inguruan: «*Denbora asko beharko da, legezko oztopoak eta politikoak izango ditugu, ezinbestekoa da aldeko jarrera tinkoa, borondate argia*». Ibiltzeke bide luzea geratzen da beraz, baina NUP eta EHU oinarri sendoetatik abiatu direla diote errektoreek: «*Gizartearen eskariei erantzun egokiagoa eman, konpetibitatea, eraginkortasuna,*

Hirurogeita hamarreko urte haiek

Francoren Gobernuak 1968an Hezkuntzaren Lege Orokorra indarrean jarri eta gero sortu zen Bilboko Unibertsitate Autonomoa, bere barrutia Bizkaia zuela. Garai hartan Nafarroa Zaragozako barrutiaren menpe zegoen, Gipuzkoa Valladolidekoaren aginduetara eta Arabari Salamancako barrutia zegokion.

Diktadurarenak laster eginak izango zirela eta Euskal Herrian giro politikoa gori-gorian jartzen hasia zenean zabaldu zen Hegoalderako Unibertsitate barruti bakarraren aldarrikapena, 70eko hamarkada hasi baino ez.

Sinadura bilketak, hitzaldiak, manifestazioak, istiluak, hitzaldiak, denak kezka zabal baten adierazgarri bilakatu ziren. Oraindik badago urte haietako pegatinak gordetzen dituenik ere.

Autonomi Elkarteko Estatutua aurrera atera ondoren, hamarkada bukatzeaz jada, UPV-EHU sortzea erabaki zuten Madrilén berriro ere lurraldetasuna-barruti bakarraren gaia mahaiaren gainean jarri. Batzuen iritziz ezin izan inolaz Euskal Unibertsitatea Nafarroa eta Iparraldea barrutitik kanpo utzita, besteentzat izenak kokagunea azal-

tzen zuen, ez lurraldetasuna.

1983ko LORU legeak unibertsitatearen autonomia murriztuta zuela, EHU estatutuak osatzeari ekin zion Gregorio Monreal errektorearen taldeak. Euskara eta irakaslego propioarekin bezala, Joserra Etxebarriak defenditutako zuzenketa atera zen aurrera klaustroan: «...EHUK ahalegin berezia egingo du Nafarroako Unibertsitatearekin elkarlana garatzeko eta barruti bakarra osatzeko».

Hamar urte hauetan zehar ofizialtasunak urrats bat eman du, bizitzak, berri, mila buelta.

orain arteko esperientzia eta abar.

Barruti bakarra iritsi artean, bi unibertsitateotako ordezkariak batzorde iraunkorra osatu dute hitzarmenaren puntuak garatu eta praktikan jartzeko helburuz. Nafarroa, EAE eta Iparraldea edo lehenengo biak bakarrik bildu dituzten egitasmoek historikoki hautsa harrotu badute ere, oraingoan ez da gaurdaino horrelakorik gertatu. Unibertsitateetan hitzarmena ongi ikusi dela diote batzuek eta besteek eta, ezbaierik gabe, datu garrantzitsua da. Baina hainbat politikarik duen begi zorrotzaz oharturik, egitasmoari besterik gabe bide emango diotela pentsatzea gehiegixko litzateke. Horretaz ari ote errektoreak prozesu luzea eta malkartsua izango zela iragartzean?

MIKEL ALDASORO

San Marcial 1
Tlf. 420071
Donostia

VIAJES  BIDAIAK

Urbieta 58
Telf. 480688
Donostia

ABIOIA JOAN ETORRIA

BEHE D.

GOI D.

Adidjan	107.400	114.000
Abu Dhabi	104.400	126.600
Adelaida	150.000	150.000
Aruba	108.900	134.100
Atlanta	70.600	96.800
Auckland	155.500	155.500
Bamaco	94.000	104.400
Bangkok	84.200	97.800
Bermudas	78.800	108.800
Bogota	92.900	115.000
Bombay	86.900	103.200
Bonaire	104.400	131.900
Boston	59.900	76.100
Buenos Aires	106.700	131.000
Calgary	85.800	106.500
Caracas	92.900	108.600

ZER LITZATEKE EUSKAL HERRIA PILOTARIK GABE?

Etxahunen esaldi hau erabiltzen dute ikaspilotako arduradunek beren egitasmoaren mamia azaltzeko. Honen azken adierazpena herriz herri dabilen Euskal Pilotaren Erakusketa Ibiltaria dugu, uneotan Donostian dagoena.

ARDATZ eragile bezala «euskal pilota» gaia hartuz Gipuzkoa alderik alde zeharkatzen ari da Pilotaren Erakusketa Ibiltaria. Ikaspilota egitasmoak ekintza osagarrien atalean jasotzen duen erakusketa hau Loiolan dago egunotan, «*aportazio kultural-didaktiko bat*» sortzeko helburuarekin. Izan ere, Ikaspilotako arduradunek ez dute «*eduki kontzeptual biribilduez eta ze-*



Euskal Pilotaren Erakusketa Ibiltaria Donostian da egunotan. (Argazkia: Alberto Elozegi).

batzez informaziorik» emateko asmoa, baizik eta ikuslearen motibazioa eta jakinmina sortzea, didaktikotasuna du, beraz, ezaugarri garrantzitsua. Erakusketak,

ezaugarri ibiltaria izaki, euskal kulturaren eta kirolaren barruan pilota «*elementu garrantzitsu bezala ezagutu eta ikusteko modua*» eskaintzen du.

«Zenbait gauza dakizkien haur bat nire ustez pilotaria da, ez zuriz jantzitako hori bakarrik, eta hor dago ikuspuntu honen berezitasuna»
JOSEAN UNSAIN

Era berean, ikastetxe, pilota-eskola, kultur etxeak eta interesa duten zaleek kirol honen historia, garapena, pilotari ospetsuak, pilotaleku eta pilota ezberdinen ezaugarriak ezagutu ditzaten hormirudi batzuk antolatatu dituzte, erakusketa erakus- eta irakas-tokia izan dadin, pilota museo baino. Ikaspilotak Gipuzkoan duen arduradunaren arabera, «*loturak sortzen di-*

Ikaspilota, Gipuzkoatik Euskal Herrira

1990eko urriaren 21an, Euskadiko Pilota Federazioak, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskola esparruan pilotajoko berreskuratzeko eta bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Akordio hau, oraindik indarrean dagoena, izaera esperimentalaz abiarazi zen eta beronen aplikazio esparrua Gipuzkoari mugatu zitzaion hasieran. Hain zuzen, 1991ko urtarilean abiatu zen Gipuzkoako lurraldean. Proiektu berritzailea izateaz gain,

Euskal Herriko beste lurraldeetara zabaltzeko asmoz ezarri zen, agiri ofizialean jasotzen zen bezala. Hala, 1993ko martxoan Arabak hartu zuen lekukoa, ondorenean, urte bereko irailean, Bizkaian ere martxan jartzeko. Baina ez dira horretan geratuko, ezen Nafarroa eta Iparraldeko hiru lurraldeetara zabaltzeko asmo tinkoa baitaukat.

Ordudunik, Ikastolen Elkarteak Ikaspilota proiektuari dagokien ekintzen programaren jarraipena landu, gestionatu

eta burutu du. Gertakari honek berarekin batera dakar Ikaspilota gisa ezagutzen den proiektua, lurralde esparruko eskumen eta ezaugarri ezberdinei behar duten begirunea gordez, Euskal Herriko el-

karte osoan salbuespenik gabe garatzeko nahia.

Ostera, Ikaspilotaren proiektuan parte hartu nahi duen ikastetxe ororentzat dago zuzendua, ikastola, ikastetxe publiko nahiz pribatuentzat.

ra erakusketaren bitartez: kultur etxeak bainbat ekintza antola ditzake, mahainguriak, diaporamak... Are gehiago, kultur etxea da dinamizatzailea eta tarte horretan denak gara protagonista... Hazia botatzen dugu, eta hazi horiek inoiz ernetzeko bidean jarri.

Erakusketaren osagaiak


FRONTOI motak erakusten ditu, besteak beste, Euskal Pilotari eskainitako ikuskari honek. Horma batekoak, hiru hormakoak, trinketeak nolakoak diren ezagutzeko parada izango dute orain Donostiako Loiola auzoan eta beranduago Gipuzkoako beste herrietan -oraingoz- izango den erakusketa honetara hurbildu eta honen inguruko ekitaldietan parte hartzen dutenek. Tresna moten sailkapena ere egina dute Ikaspilotako ardura-dunek. Palaz, txisteraz, guantez, xarez edo teniseko

raketaz jokatzeko tresna ezberdinak ikusgai dira, kirol honetako osagai ezinbesteko izaki. Tresna eta pilota motek, beraz, leku oso inportantea osatzen dute bertan, espezialitate bakoitza nondik sortu zen eta gaur egunera arteko aldaketen berri ematen zaie bertaratu-takoei.

Joko era ezberdinak ere aztertzen eta ezagutarazten ditu erakusketak. Izan ere, zuzen motakoak dira errebotea, laxoa eta bote luzea. Ez zuzenak, ordea, gomazko paleta eta esku hutsekoak. Jokatzeko teknika eta lekuek aipamen berezia dute, baina ez dituzte ahaztu nabarmendu izan diren pilotariak, espezialitate bakoitzeko ospetsuenen zerrenda osatu baitute.

Ikaspilotaren eredia

IKASPILOTAK bere zerbitzuak Euskal Herriko ipar eta hegoaldean eskaintzen ditu. Ezaugarri garrantzitsu-



Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoak
Gasteizen
"Ongi bizi" ikuskizuna



Maiatzak 28 Igandea
arratsaldeko 6 t erdian
Principal Antzokian



SARRERAK SALGAI HONAKO LEKUTAN:

Haurak: 300 pece
Helduak: 600
- Bagare Euskal Tokia
- Herrikoia liburutegia
- Axular liburutegia
eta egunean bertan
Principal Antzokian

ANTOLATZAILEA:

GEU

BAHELEA:




LAGUNTZAILEAK:

VITORIA G. O.

GUANTEZ EUSKADI



ARGIA



Josean Unsain Gipuzkoako arduraduna. (Arg.: Alberto Elozegi).

tzat du diziplina-anitzekoa dela, «*eremu askotara irekia dago*», Josean Unsainek dioen eran. «*Zenbait gauza dakizkien haur bat nire us-tez pilotaria da, ez zuriz jantzitako hori bakarrik, eta hor dago ikuspuntu bonen berezitasuna*».

Aniztasuna ere elementu garrantzitsua da Ikaspilota egitasmoari dagokionez; izan ere, Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Pilota Federazioak, Kutxak eta Ikastolen Elkarteak babestutako-proiektu honen arabera, elementu sozial gisa baloratzen da pilota eta hezkidetzaren ikuspuntu batetik: «*Erabat mutileri zuzendutako pilota sexualetik, guztiei zuzendutako pilotara goaz*».

Euskal pilota orohar ere-


mu guztietan eta zehazki ikastetxe eta ikastoletan egiten den kirol-zerrendaren aldean bere adierazpen-mailarik eskasenera zokoratuta aurkitzen delako sortu zen Ikaspilota, eta horretara honen inguruko ekimenak sustatzea kultura, kirola eta hezkuntzaren ikuspegi hirukoitzetik jarria du helburu. Unsainek itxaropen haundiz dio: «*Eskola mundutik abiatuz, euskal pilotari dagokion tokia eta garrantzia berreskuratzea dugu helburu, jendearengan pilotazeletasuna ernaraziz, pilotaren ezagutza zabala hedatuz... azken batean, gure herritarren kirola biburtuz*».

**MIKEL JAUREGI
ARANTXA ERASUN**



La Casa del Café

— Juan Iriando S.A. —
D O N O S T I A



«Adierazpen askatasuna ilusioa besterik ez da»

Hondarribiko bere etxean aurkitu dugu kataluniarra, maite dituen liburu artean. Errepresioaren aurka urteetan adoretu aritu den emakume honek ilusioz hitz egin digu literaturaz, argitalpengintzaz eta, oro har, bere bizi ikuskeraz.



■ Abortatzea eginez gero kartzelara joateko arriskua izatea Erdi Arokoa dirudi. (A.: A. Elozegi).

Espetxean egon zinenean «Diarios y cartas desde la carcel» idatzi zenuen, errepresioari buruz.

Preso sartu aurretik hasi nintzen torturaren gaia jorrazten, oso sakonki ez bazen ere. Torturari buruz zerbait banekiela uste nuen, baina kartzelan egondakoan ohartu nintzen ezer ere ez nekielela. Torturatutako jende asko ikusi nuen orduan eta «Tes-

timonios de lucha y resistencia» ere idatzi nuen.

Kartzelan bi gauzaz konturatu nintzen. Batetik, lehenbailehen irten behar duzula, eta horretarako ihes-ten saiatu beharra dago. Bestetik, irteten ez zaren bitartean aktiboki iraun behar duzula, ateratzean sartutakoan baino indartsuago egoteko ideologikoki eta fi-

sikoki. Ia ihes egin nuen eta horri buruz «El libro de la fuga» idatzi nuen, laster argitaratuko dudana. Ez nintzen joan, baina asko prestatu nintzen ateratzerako. Orduan asko idatzi nuen, idaztea defentsa baitzen.

Gai hau aztertzen jarraitu duzu ondoren ere.

Atera nintzenean egoera be-rezi batekin egin nuen topo.

Batetik, torturatzen zuten jendearekin harremanetan jarraitzeko aukera izan nuen. Bestetik, diktaduraren amaiera eta demokratiko izeneko garaia hasiera bizitzeko aukera izan nuen. Etapa berri honetan errepresioak zein bide jarraitu zuen aztertu ahal izan nuen. Egitura demokratiko baten barruan errepresioa nola bir-



«Komunikabideek egiten dutena pentsamenduaren kontrola besterik ez da, ixten duten bidea guk ireki behar dugu». (A.: Elozegi).

moldatzen zen ikusi nahi nuen, errepresioak jarraituko zuela bai bainekien.

Birmoldaketa hau nabaria izan al da trantsizio garaitik bona?

Uste nuena baino gehiago. Estatu Batuetako demokrazia hurbiletik jarraitu nuen eta Viet Nam-en egindakoa ikusita, hemen ere demokraziaren aitzakiapean errepresioak jarraituko zuela banekien. Birmoldaketaren aldaketa garrantzitsue-

na, estructures demokratioaren babesean errepresioari bidea irekitzeko sortutako legeak izan ziren.

1979an Parlamentuak Lege Antiterrorista onartu zuen. Preso politikoen figura desagertu zen, beren arriskuaren arabera mailakatu. Oinarrian ez zen ezer ere aldatu, baina formalki guztia. Ondorioz, jendeak ez zuen sinesten torturatzen zela eta orain ere berdin gertatzen da. Tortura kasuak

kasu bakanak direla uste dute eta ez dute onartzen tortura estatuko aparatuen arma dela.

Hemengo torturen arazoa atzerriratzen saiatu zara beti.

Tortura kanpoan eta barruan indar berarekin salatu behar da. Kanpoan, gainera, benetako jende demokratik lan egiten duten erakundeak daude. Dena den, hauen indarra oso txikia da estatuen boterea eta komunikabideekin konparatuta.

Arazo larriena da torturen mezua nola zabaldu, komunikabideek sortzen duten egoerari aurre egiteko. Ez dute informaziorik ematen eta ematen dutena aldatuta ematen dute. Tortura, kartzetako egoera gogorra, dispersioa... estrategia beraren atalak dira, Mujika Herzogek berak dispersioa hasi zutenean esan zuenean bezala, «bergizarteratzea edo heriotza».

NBEk Estatu espainiarrean torturatzen dela esan du. Salaketek ondorioz izaten al dute?

Oso garrantzitsua da horrelako erakunde batek torturatzen dela onartzea. Oso zaila izaten da pertsona bat torturatua izan dela frogatzea, torturatzen den tokian lekukorik ez dagoelako. Baina torturaren ebidentzia bada go eta horregatik salaketa zuzena egin nahi dut. Estatu honetan torturatzen dela ebidentzia dutenak epaileak eta mediku forentseak dira. Baina oraindik ez dute, ekimen propioz, salaketarik egin.

Nazio Batuen salaketara itzuliz, nahiz oso eraginkorrak ez izan, Estatu espainiarri min egiten dio. Dena den, egoera konpontzeko ez da gehiegi egiten, estatuen



NORTASUN AGIRIA

● Bartzelonan jaio zen 1929an ● Alfonso Sastre idazle eta antzerkigilearekin bizi da eta hiru seme-alaba dituzte ● Hondarribian dute egun bizilekua ● Jose Bergamin idazle famatu «on baina saritu gabea» oso lagun mina zuen eta bere omenez antologia argitaratuko du ● Oso atsegin du altzari zaharrak erabiliz bere eskuz berritzea, etxea gustura egokituz ● Argazkilaritza asko maite zuen, baina ezin izan du gehiegi garatu ● Etxeko solairu baten hormak liburuz estalita daude ● Hiru argitaletxeko liburuen azalaren diseinua berak egiten du ●

«ETAK ni aukeratzeak poz handia eman zidan, batez ere beste batzuk saiatu zirelako, Garcia Marquez Nobel sariduna barne»

arteko konplizitatea medio. *Atzera eginetz, «Operación Ogro» Julen Agirre ezizenez sinatu zenuen.*

Garai oso klandestino zen eta liburu bera ere klandestino. Liburu hori izan zen ni kartzelaratzeko erabili zuten arrazoietakoa bat. Liburu hura egitea atsegina handia izan zen niretzat. Argala ezagutzen nuen eta komandoaren istorioa idaztea interesgarria iruditzen zitzaidan. ETAK oso gauza interesgarriak egin zituela pentsatzen nuen, idazten ez zirelako galtzen zirenak. Idaztea proposatu nion ETARI. Ni aukeratzeak poz handia eman zidan, batez ere beste batzuk saiatu zirelako, Garcia Marquez Nobel sariduna barne.

Asko ikasi nuen. Borroka armatua asko desmitifikatzen zen batetik, bestetik proiektu serioa dela erakusten zuten... hori guztia oso aberasgarria izan zen niretzat. Gero Poliziak egindako miaketan batean liburuak etxean aurkitu zutenean ETAKo kideekin harremana izan nuela frogatu izan zuten. Komandoko inor atxilotu ez zutenek, kolaborazioz salaketa prozesatu ninduten.

Egun posible litzateke «Operación Ogro» bezalako liburua idatzi eta Eva Forest gisa sinatzea?

Kartzelatik atera nintzenean liburuak sinatu nuen. Une hartan ez negoen oso seguru



salaketako liburuak argitaratzerakoan norberaren izena ipintzea komeni zen. Egun, ordea, sina daitezke, hain zuzen neronek torturaren aurkako liburuak atera ditut. Baina liburuok ez dute eraginik izaten, ez da hauei buruz inon hitz egiten, kritikarik ez zaie egiten. Egia dioenari ez zaio sinetsiko.

Oraindik gertatzen da Carrerori buruz zerbait egin nahi dutelako komunikabide batzuk nigana etortzen di-

renean, eta baldintza bezala torturari buruzko beste erreportaia egiteko eskatzean, ez dutela nahi izaten.

Adierazpen askatasuna, beraz, nola ikusten duzu?

Adierazpen askatasuna, azken batean, ilusioa besterik ez da, komunikabideek egiten dutena pentsamenduen kontrola besterik ez baita. Hauek kontrolatzen dute herritar zintzoak nola eta zer pentsatu behar duen. Komunikabideek ixten dituzten

«Torturaren ebidentzia badago eta horregaitik salaketa zuzena egin nahi dut. Estatu honetan torturatzen dela ebidentzia dutenak epaileak eta mediku forentseak dira eta, ekimen propioz, ez dute salaketarik egin. (Argazkia: Alberto Elozegi).



eskubideen alde borrokan egon behar izateari?

Oinarritzko askatasunen alde borrokatu beharrean gaude oraindik. Egia esan, gezurra dirudi gaur egunean abortatzea gauzatuz gero gartzelara joateko arriskua izatea. Erdi Aroko gauzak dira horiek. Informazio falta izugarria dago oraindik. Ni beti oso pragmatikoa izan naiz. Nire ustez emakumeak alor guztietan jardun behar du eta horrek berak eskubideak lortzera bultzatzen ditu. Dagoen moralitate faltsuak eragin handia dauka.

dia dauka.

²Torturabezalako errepresio moduetan ere nabari al da emakumearekiko jarrera ezberdina?

Bai eta ez. Muturreko egoeretan, adibidez ETAko bikideren atxiloketaren ostean, berdin jipoitzen dute emakumea edo gizonezkoa, intentsitatea bera da, baina bakoitzari min handiena emango dion tortura egingo zaio. Azken batean sexua desagertzen da, pertsona izateari uzten zaio eta 'gauza' bihurtzen zaituzte.

Beste maila batzuetan, tortura neurtu egiten dute eta maila honetan plus bat dago emakumea torturatzeke orduan. Plus hau, torturatzaileak gizonak izatean datza. Beren ideologia patriarkal osoa emakumearengan proiektatzen dute. Beste kasu bat, emakume torturatzailearen figura izaten da. Hauek gizonezkoek baino hobeto jakiten dute zerk egiten dien min emakumei.

Jendeak ez du onartzen tortura estatuko aparatua arma dela. (Arg.: A. Elozegi).

bidea guk ireki behar dugu, mezua herritarrengana irits dadin, eta hori lan zaila da. Hauetan lan egiten dutenak gero eta otzanagoak bihurtzen ari dira eta ondorioz kritika gutxitzen da.

Kartzelatik aterata Euskal Herrira etorri zintzen Alfonso eta zeu. Zer aurkitu nabi zenuten?

Madriren Euskal Herriarekin Elkartasuna taldea sortua genuen, baina oso zaila zen. Madrilgo jende ezkertiarra oso berezia zen. Gaur egun gertatzen den bezala, emakumearen askatasuna, ideia liberalak... aldarrikatzen zituzten, baina euren España ezin zen ukitu.

Kartzelatik atera ginenean gure etxea militarrek prezintatua zegoen eta ezin ginen sartu. Etxea utzi zigutenean berriro ere elkartu ginen. Oso omenaldi polita egin zidaten, euskal hiritartasuna eman zidaten... eta hemen geratzea erabaki genuen.

Nola aldatu da bertakoen pentsakera ordutik?

Jendeak itxaropen handia zuen. Ez nuen itxaropenik, errepresioak berdin jarraitzen baitzuen. Guztiak berdin jarraitu zuen, Polizian ez zen garbiketarik egin eta jende askok amore eman zuen. Bergizarteratzea orduan hasi zen.

Franco hil zenean, espainolak gustora geratu ziren demokraziaren fase berriarekin. Euskal Herrian, aldiz, nabaria zen ezer ez zela aldatu eta eskubiderik gabeko herria izaten jarraitzen zuen. Batzuek amore eman zuten, beste batzuek, aldiz ondorio guztiakin jo zuten aurrera.

Zein garrantzi izan du


zuretzat Eugenio Etxebestek «Operacion Ogro»ren azken argitalpenerako sarrera idatzi izanak?

Niretzat oso garrantzitsua izan da. Nik aspaldian eskatu nion, baina Antxon deportatua egonik, arazo handiak zituen. Deportatuaren bizitza oso gogorra baita.

Bidali zidanerako liburua aterea zegoen, baina argitalpen berrian atera nuen. Pertsona hauen giza-balioa erakusten du idatziak eta oso gustora argitaratu dut liburua lehendabizikoz atera eta hogeit urtera.

Zer deritzozu egun oraindik emakumearen

«Argitaletxea arma intelektuala, kulturala eta politikoa da. Euskarazko literatura itzultzea, Euskal Herritik kanpo ezagutzera ematea politikoki oso garrantzitsua da»



«Torturazailleek beren ideologia patriarkala emakumearengan proiektatzen dute». (A.: A. Elozegi).

«Hiru» argitaletxea sortu duzu, bi lagunekin batera. Zer behar zegoen argitaletxea sortzeko?

Niri dagokidanez, beti eduki nahi izan nuen argitaletxea. Alfonsoren lan guztiak argitaratzeko ilusio handia nuen. Bestalde, nik idatzitako lan guztietatik premiazko literatura kontsideratzen ditudanak bakarrik nituen argitaratuta orain arte, eta

ditudan eleberri eta ipuinak argitaratzea ere gustatuko litzaidake.

Komunikabideei buruzko «Ojo con los media» ateratzear zaudete. Zergatik aukeratu duzue?

Kazetaritza desmitifikatzen da. Agitaziorako eskuliburu gisa planteatzen du idazleak. Goraipamen handiak izan ditu eta Frantzian laugarren edizioa atera da, da-

goeneko. Komunikabideen manipulazioari buruzkoa da, zein eragin duen eta nola ekidin daitekeen. Golkoko Gerraren inguruan esandakoak, Somaliako gertaera eta beste hainbatetan komunikabideek izandako jarrerak erakusten ditu.

«Milia Lasturko» bilduman euskal idazleak gaztelerara itzuli dituzue, zergatik saio hori?

Gehientsuen maite dudan bilduma da, euskal literatura ezagutzera emateko helburua duena. Hau politikoki oso garrantzitsua da, Euskal Herritik kanpo hemen literatura ona dagoela jakin behar dute, hau ez dela herri hila, hizkuntza propioa duen herria garela. Baina arazoak ditugu, batere dirurik gabe gabiltza eta askotan gure diruarekin bete behar ditugu hutsuneak. Orain arte ez dugu laguntzarik eskatu baina orain hila-bete bat Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatu genion. Honek, baina, ez du aurrekonturik idazle euskaldunen lanak itzultzeko eta ez dugu esperantzarik.

Independentzia handiz jokaten dugu. Arazoa ekonomikoa da. Dena den, gauza batzuk argi ditugu; ahal ditugun subentzio guztiak eskatuko ditugu baina ematen ez badizkigute ere aurrera egingo dugu, erritmo ezberdinean baino aurrera.

Etekin ekonomikoa alde batera uzten baduzue, zer da bilatzen duzuen?

Argitaletxea arma intelektuala, kulturala eta politikoa da. Aurrez ez zegoen planifikaziorik. Bilduma berriak beharren arabera sortu ditugu. Gai interesgarri asko dugu oraindik argitaratzeke. Ona den zerbait aurkitzen dugunero argitaratuko dugu. Bidea zabalik daukagu. Proiektu asko ditugu gainera, batez ere antzerkiak.

Zure liburua noizko?

Durangoko Liburu Azokarako bat argitaratuko dut, baina oraindik ez dakit eleberria ala ipuin-liburua izango den.

ARANTXA ERASUN
AINHARA ZUAZABETTIA

Loretu gabeko udaberria

LANGABEZIA eta etxebizitzaren inguruan barra-barra hitzegin bada ere, euskarak apenas merezi izan du arretarik hauteskunde kanpaina honetan. Arazo edo kezka nagusien *rankin*-gean lehen postuetatik urrun agertu dute alderdi gehientsuenek, adibide esanguratsua eskainiz beraz, elebitasuna besarkatu omen duen euskal gizarteari. Eta maiatzaren 28tik aurrera zer? Makineriaren pieza nagusiak erdaraz olioztatuta ditzuten udal eta foru aldundiek zer urrats emango dituzte euskararen normalizazioari begira? Horra, beste behin ere, burura datorrigun kezka, hauteskunde kanpainen isilean pasa dena, eta ondotik, zalapartaz aineratu daitekeena, hizkuntz perfilen kasuan, adibidez. Izan ere, datozen lau urteotako legealdian askatu beharreko korapilo asko izango dira hizkuntz politikaren alorrean, eta ba-

tipat erabilerari dagokionean. Euskararentzat urte erabakiorrak gertatuko direnik ezin ukatu.

AEK eta Eusko Jaurlaritzak duela ia urtebete sinatu zuten akordioa euskalduntze eta alfabetatzearen munduari begira erabakiorra gerta zitekeela antzeman bazen ere, ez aurrera ez atzera dagoela plazaratu dute AEKko kideek, Lakuaren aurrealdean protesta ekin-tza eginez. Koordinakundeak adierazi duenaren arabera, irakaskuntzaren normalkuntza dela, AEKren errekonozimendua eta dirulaguntzen inguruan bi aldeen arteko urruntasuna nabaria da. Akordioaren funtsa dago beraz, auzitan. Zaila da ulertzen, berau sinatu eta gero, errekonozimenduaren gaia oraindik ere mahai gainean egotea, kezkagarria Eusko Jaurlaritzaren aldetik elkarriketarako jarrera puntu

honetan kateatua egon daitekeela jakitea, eta ikasturte hau dirulaguntzen gaia garbitu gabe amaituko dela ikustea. Antzeman daitekeenez, ezer gutxirako eman dute urtebeteko negoziatioek, ez dira hasierako espektatibak inondik ere bete, eta aurrerantzean, laino beltzak baztertzen lanik izango da. Ekainaren 10erako deitu du AEK-k mani-

Bi orkestra handirekin zer egin ez dakiela dabilen administrazioari behingoz musika politika osatzeko gonbitea egin diote musikariek

Gipuzkoako Arrasate herrian egingo da «Euskaldunon Egunkaria»-k laugarrenez antolatutako duen Egunkari Eguna, ekainaren 11n. Iñaki Uria kontseilari ordezkariak esan duenez, Eusko Jaurlaritzarekin irekitako elkarlanerako bideari «abiada bizia» eman behar zaiola, euskarazko produktuek orain dutena baino laguntza handiagoa behar dutela gogorarazteko festa eguna izango da. Ohikoa denez, bertsolari, musikari eta dantzariak giroturiko ekitaldiak izango dira nagusi. (A: Ander Gillenea).



Zinez sinestezina

festazio nazionala, zeinak duela urtebeteko akordiorik gabeko egunetara itzuliko gaituen eta indarrean dauden eskemak aldatzea eskatuko duen.

Indarrean dauden eskema horiek izan dira urteotan euskalduntze-alfabetatzearen familia handiak aldarrikatutako aldatetarik errotik moztu dituen, eta «Egin» egunkariak kaleratu berri duenez, aurrerantzean ere ildo beretik jarraitu nahi du HABE erakundeak, berrantolaketari heldu gabe, eta baliabideak bere horretan mantenduz. Udaberriaren lore berririk ez, eta uda partean ez ahal da lehortea zabalduko ahal honetan.

Nafarroan berriz, orain dela bost hilabete elkarrizketa eskatu eta gero, Nafarroako Hezkuntza burua den Javier Markotegirekin solasean aritu dira, hauteskunderen erdian, AEK eta IKAKo ordezkariak. Ez zuten inolako akordiorik erdietsi, eta jakinarazi zitzaizenez, UPNko gobernuak ez du hel duen euskalduntze-alfabetatzea arautzeko inongo planik. Bien tartean, politika murriztailea aurrera daroma Gobernuak, aurtengo aurrekontuetan AEK eta IKAK nozitu dutenez. Aspalitik datorren lehortea dugu Nafarroakoa, eta gero eta nabarmenago antzematen da ez daudela bazter hauek ureztatzeko prest.

ERRETERIAKO Musikaste ekitaldien barne, doinu berririk entzuteko parada izan dugu edizio honetan. Izan ere, EAEn konpositoreen elkarte sortu beharraz mintzatu zitzaizkigun, Koldo Pastor, Joseba Torre, Rafael Castro, Gotzon Aulestia eta Tomas Aragues. Estatu espainiarrean tankera honetako elkarterik ez duen lurralde bakanetarikoa dela eta, proiektuak erakunde publikoen babes jaso behar harko lukeela adierazi zuten, EAE artistikoki eta musikalki berregituratzen lagunduko lukeelakoan. Bi orkestra handirekin zer egin ez dakiela dabilen administrazioari behingoz musika politika bat osatzeko gonbitea da noski, konpositoreek egindakoa.


J.J. PETRIKORENA



URREKO batean kanpotik Euskal Herrira bizitzera aspaldian etorritako lagun bati honako hau entzun nion afalosteko berriketan ari ginelarik: «euskaldunoi gertatzen zaiguna zera da: euskararena guk geuk ere ez dugula sinisten. Kanpotik etorri eta etxean eskale gisa ikusten gaituzte, gurea dena exijitzeko baimena eskatu beharrean izango bagina bezala».

EUSKAL Herri osoan hauteskunde aroa bizi dugularik, asteotako debate politikoari so egin dionak berehalaxe egiaztatuko du euskararen auzian euskaltzaletasunaren termometroak azaltzen duen marra zein behean dugun. Sukarra izatean osasuna berreskuratzeko lehia isladatuko litzateke. Gurean, aldiz, gorputzaren bizitasun falta islatzen duen temperatura hotza baino ez da agertzen, gurean dugun sinesmen defizitak zer nolako larritasuna duen erakusten diguna.

Euskararen auziak alderdi politikoaren arduetan duen presentzia eza lekuko. Espainia edo Frantzia erreferentzia duten alderdi edo indar sozial ororentzat berriz, edozein tikimikia da aski, gatazkarik pizteko, kalean edo lantokian nekez aurkituko duzuna baina Madrilen edo Parisen erreferentzia politiko eta kulturala duten komunikabideek eraginkorra bilakatzen dutena. Euskalgintzak jasan beharreko urte osoko laxo urdin propioa.



XABIER ALEGRIA

NAHIKOA da administrazioaren euskalduntzeak ezinbesteko dituen langileentzako eskakizun erabat lojikoak martxan jarri nahi izatea, asaldatze interesatuak piztu eta dena zailentzan jar dadin. Euskaraz lan egin behar duenari euskara ezagutzea eskatzen badugu, hori ere inposiziotzat aurkezten digute telebistetan, irratiaren, egunkariaren. Nahikoa da A ereduak suposatzen duen eskubide pertsonal eta kolektiboaren aurkako erasoaren tamaina agerian jarri nahi izateak, tolerantziaren diskurtsoan estalitako jarrera erasokorrak sentitzea. Erdararen inposaketaren edizio berria bideratzen dute horrela.


Zoritxarrez lan horren efikazia izugarria da. Aurtengo udaberriaren amaierak, adibidez, euskalgintzarako iragarritako hobekuntzak ezerezean nola gertatzen ari diren jarriko du agerian. Herri honen etorkizuna erakitze euskaraz baino porlanaz osatu nahi baitute herrigintzaren oinarria. Sinesgaitza badirudi ere, gureaz dugun sinesmen ezak eragindakoa.

TXUTXU - MUTXUKA


«HIK HASI»: EUSKAL IRAKASKUNTZARAKO ALDIZKARIA

EKAINAREN 2an kaleratuko da «Hik hasi» aldizkariaren zero alea, euskal irakaskuntzari begira, eta Euskal Herria osoan, zabalduko dena. Irakasle Elkartearen baitan ideia sortu ondoren, irakaskuntza munduari loturiko talde zabala aritu da ale honen mamitzen. Elkargune, eztabaidagune eta esperientzien trukaketarako baliagarri izateko asmoz jaso da proiektua, eta ikastetxe, udaletxe eta haur eskoletan jasotako ekarpenekin mamitu nahi dituzte aurrerantzako urratsak. Irailean kaleratuko dute lehen alea, eta hilabetekari gisa arituko dira, harpidetzen bitartez eta urtean hamar zentziki, uztaile eta abuztua alde batera, eginez.

NOR - NORI - NOR K

**XABIER DIAZ ESARTE**

idazle nafarraren eskutik kaleratu berri da «Sei haur-komedia, a zer nolako komeria!» liburua, sei antzerki gidoi dakartzana: «Mito, mito eta kitto!», «Tatxan, tatxan, tatxan Tarzan», «Eguzkiaren bila», «Gaborak ez dira hain onak», «Gazteak mintzo» eta «Txalaparta pirata eta Altxorraren txirla». Mitologia, ekologia eta bidaiez mintzatzen da autorea, eta batez ere eskolako haurrei zuzendu die lana, eta irakasle jendeari ●

**JAVIER AGIRRESAROBERI**

buruzko liburua argitaratu dute Euskadiko Filmategiak eta Vital Kutxak: «En el umbral de la oscuridad». Eibar-ko zinema-argazki zuzendariaren estilo propioaz («alde arriskutsuan jardutea dut gustoko, argi ikustezina deskubritzen den iluntasunean») eta burutu-tako pelikulez ari da liburua. Julio Medemekin egin du bere azken lana, «Tierra» filmean, euskal zuzendari gehi-entsunen argazkilari kuttunena denak ●

**JOSELU DIEZ DE GORDOAK**

gidatzen duen Joselu Anaiak taldeak bosgarren diskoa, «Hator hi ere» izenekoa, kalean du dagoeneko. Dantza eta festarako doinuak osatu dituzte, orain artekoaren lerro berean: Flako Jimenezen bertsio bat dela, mexikar piezak, reggaeak, eta rock girokoak. Letrak Jose Ramon Gerrikorenak dira, eta Joselu Diaz de Gordoarenak musika gehienak. Diskoan dator ere Araba Euskaraz ekitaldiko aurtengo himnoa: «Baietz atera» ●

TELEK

■ UDABERRIKO BIRA NAFARROAN

ABIAN da Principe de Viana erakundeak antolaturiko Udaberriko Bira, ekainaren 25a bitartean Nafarroako hainbat herri txiki (200 eta 775 biztanle bitartekoak) zeharkatuko dituen. Antzerkia, musika eta folklorea izango dira Bira honetako osagai nagusiak, eta estrainezko, zinemari ere bere tarte eskainiko zaio. 31 herri eta kontzeju aukeratu dira, beste edizioetan kanpoan geratu izan direnak eta iazko programazioaren ondoren berriro ere parte hartzeko interesa agertu dutenak tartekatuz: Orotz-Betelu, Ezkarotze, Barasoain, Nاربة, Aratzuri, Iraizotz, Ledea, Auriz-berri, Bakaiku, Ororbia, Urrotz, Zizur Txikia, Esprontzedea, Erronkari, Deikaztelu, Elo, Zubiri, Zudaire, Abartzuza, Azterain, Auritz, Beire, Iturmendi, Ezkarotz, Otsagabia, Antzin, Tiebas, Arrizabalaga eta Mañeru.

Hamasei talderekin osatuko dira ekitaldiak. Antzerkiaren alorrean, Pikor Teatro, Hika, P.A.I., Animación Infantil, Los Galindos, Teatro Imaginario, Teatre Mobil, Setrill Teatro eta Teatrapo arituko dira. Ganbara musikari dagokionez, Sine Nominetailerra, Abrene laukotea, Nuria Rial sopranoa eta Scordatura. Destiny & Soul Express taldeak jazz joko du, eta abesbatzen alorrean, Santo Tomas eta Nora izango dira aukeran. Tuterako Udaleko dantzari taldeak ere bere ikuskizuna taularatuko du. Hau guztiaz gain, eta aurtengo herrikuntza gisa Udaberriko Bira txertatu den zinemarekin amaituz, lau filme eskainiko dira.

TXINA: IRATZARTZEN ARI DEN HERENSUGEA



Eguno ekonomia mundialean dugun herririk garrantzitsuenetakoa. *Txina: Iratzartzen ari den herensugea* liburuan azken hogeitun urteotan kapitalismorako bidetik (txinatar merkatu-sozialismorako bidetik Den Xiaoping-en hitzetan) abiatu den erraldoi honen arestiko historia aztertzen da. XIX. mendeko Txina, Iraultza nazionalista., Herri-Errepublika eta egungo egoera hurrenez hurren arakatzeko aukera izango duzu.

80 orrialde, 60 argazki, diagramak eta bibliografia.

JADANIK KALEAN !!!

EUSKAL HISTORIAREN 15 GERTAERA NAGUSI



Gure herriaren historia ulertzeko oinarritzko gertaerak aztertzen dira *Euskal historiaren 15 gertaera nagusi* liburuan.

Euskaldunak: Noiztik Euskal Herrian? Erromatarren konkista. Orreagako bataila. Nafarroako Erreinuaren hasiera. Nafarroaren konkista. Matxinadak. Matalas. Azkoitiko Zalduntxoak. Garat eta Frantziako Iraultza. Bergarako Hitzarmena. Lehen labegaraia. EAJ/PNV eta PSOeren sorrera. Gernikako bonbardaketa. ETAren jaio-tza. Franco hil ondorengo lehen hauteskundeak.

ARGAZKI EZIN EDERRAGOEKIN



GAIK ARGITALDARIA

«Bidez bide» diskoa kaleratuko du Guk taldeak ekain hasierarako

«Honelako diskoa egitea autokritikaren emaitza da»

Sarasola-Borda izenak jasotzen du Guk taldearen sorrera. Beñat Sarasola eta Joanes Borda hasi baitziren kantuan gitarra soil baten babesean. Urteak igaro eta Pampi Lacarrieu eta Eneko Labeguerierekin laukotea osatua zen. Lau baita ere sorbaldan dituzten diskoak eta «Bidez bide» izenekoak amaitu dute orain. 25 urtetan urratutako ibilbideaz aritu gara Uztaritzera gerturatuta.

Noiz eta nork sortu zuen Guk?

Guk-en sorreran, 68-69 urteetan, Beñat Sarasola eta Joanes Borda ziren soilik eta abestiak egiten genituen. Baina ez ginen luzaz aritu biak bakarrik. Pampi Lacarrieu sartu zen eta gerora beste bi musikari, Pier Paul Berzaitz eta Davant. Orduan antzerki moduko emanaldiak eskaintzeari ekin genion. Era honetara, abestiei lotura ematea lortu genuen, istorio bat pentsatuz: «Aita-seme-laborari» izena zerman ikuskizun hark.

Nola gogoratzen duzue garai bura?

Abertzaletasuna hasten zen; iheslariak... giroa sortzen.

Behin Erreterian kantaldia eskaintzera joan eta nahiko harrিতa gelditu ginen, jende guztiak txalo bizian hartu zituen gure kantuek. Iparraldetik Hegoaldera joan eta desberdintasuna nabaria zen. Bestalde, iheslariekin ere anitz gauza ikasi genituen Euskal Herriari buruz, eta abertzaletasunari buruz. **Egoerak kantari bezala konpromezu politikoa eskatzen al zizuen?**


Garai hartan abertzale gazteak ginen. Enbatako has-tapenak ziren. Baina abertzaleak beti multzo txikian egoten ziren. «Aita-seme-laborari» egitearekin batera, ordea, arazo soziala abertzale-politiko arazoari lotzea

lortu zuen taldeak. Iparraldean urrats handia izan zen hori. Kontuan hartu hainbat laborari bestela ez zirela sekula kantaldietara etorriko. Izan ere, ordura artekoak abertzaleen kantaldiak ziren, mitinaren antza hartzen zutenak. Bazen muga herria eta abertzale gazteen artean. Aldiz, antzerki horri esker laborariak bere burua arazoan barne ikusten zuten. Mugimendu sindikalista Iparraldean, ELB eta abar, antzerki horren ondotik sortuak dira.

Zer kontatzen zen «Aita-seme-laborari»?

Etxalde bateko semeak egun batean Parisera bizitzera joatea erabaki eta aitari esan dio: «*Han badakit bizi ederra dela*». Mutikoak aitarekin errieta izan baina azkenean aitak Parisera joaten utzi dio. Parisen bere buruari hainbat galdera egin ostean, «*zer ari naiz ni hemen?*», berriz itzuliko da; aitari barkamena eskatu eta hitza eman lanean hasiko dela seriooki.

Borda zen aita, Pampi semea eta Beñat *txapeldu-*



na: diputatua. Honek aitari ez kezkatzeko esaten zion: «*Arazorik baduzue etorri ni ikustera*». Hori galdu egin da piska bat baina garai hartan hiru pertsonaia ziren garrantzitsuenak: medikua, alkatea eta apaiza, herriko buruak.

Ikuskizun bark deskribatzen zuen laborarien giroak eta egungoak ba al dute zerikusirik?

Bada desberdintasunik. Izan ere, gaur sumatzen da gazte anitzek etxaldearen segida hartzen dutela. Giro ekonomikoa aldatu egin da, teknologia aurrerakuntzak... Bada, ordea, orain nahikeria gazteriarengan herrian segi-



■ Ezkerretik eskuinera, J. Borda, B. Sarasola, Eneko Labeguerie eta Pampi Lacarrieu. (Arg. A. Elozegi).

tzeko. Abertzaletasunak eman du hori eta baita hirietan lan gutxiago egoteak ere.

Zenbat disko kaleratu dituzue?

Eneko Labeguerie sartzera-ko 45 itzuliko bi disko txiki. Ondoren, «Langile laborari eta nagusi» bikoitza; eta «Gerlarik ez»; «Herria zain» eta «Arroztan». Eta orain azkena, «Bidez bide». «Arroztan»-ek esaten zuen nola abertzale gazteak arrotz sentitzen ziren bere herrian; politikari frantsesek zer egiten zuten gure ideiak eta esanak arrotzeko.

«Bidez bide» bonetaraino zein ibilbide egin duzue?

Sekula ez dugu izan disko honetan erabilitako musika moldaketarik. Aurrekoetan askoz ere sintetikoagoa zen musika. Bestalde, «Bidez bide», musika aldetik aberatsagoa da. Gitarra, kontrabaxua eta banjoa erabiliak genituen aurrez, baina

oraingo honetan horietaz gain, hamaika instrumentu sartu ditugu: xirula, pianoa, kontrabaxua, trikitixa, txeloa, perkusioak. Gaur entzuten den musika moldetik hurbilago dago. Bestalde, kanpoko bi musikariek egin dituzte moldaketak: Joserra Senperenak eta Jean Lou Corilhons-ek.

«Aurreko diskoekin alderatuz, musika aldetik aberatsagoa da «Bidez Bide»; hitzetan, lehen denak borrokako abestiak ziren eta orain bestelako gai batzuk ere jaso ditugu kantuan, sentimentalak...»

Lehenago, borrokako abestiak egiten genituen. Aldiz, honetan badira horietaz gain, sentimentalak, taldeko abestiak; batzuk alaiagoak; besteak tristeagoak. Borroka borroka da, zure baitan duzu, baina ez duzu hori bakarrik. Hori baizik ez duena ez da osoa. Lehen hortik ez ginen ateratzen; beti hari berari jarraitzen genion eta pentsatu genuen besterik ere bage-nuela esateko.

Hitzak zuek eginak al dira disko bonetan?

Badira bi poema Mixel Labegueriek eginak. Gordeta zeuden eta horiek hartu eta kopla batzuk gehituz eta beste batzuk kenduz idatzi ditugu bi abesti. Badira beste bi poema, «Kateak» eta «Ardi saldoa», Santi Iparragirrerrenak; horiek ere musikatu ditugu. Eta beste bi poema anonimoak dira: iheslari bat hemengo neska abertzale batekin ibiltzen zen eta egun batean neska espetxean gertatu da. Lagun horrek poemak bidaltzen zizkion hara. Espetxetik atera, eta behin, Baionan ostatu batean neska berak Enekok musikatu nahiez gero poemak hor zituela esan zuen. Poema horiek bildu eta bi musikatu ziren: «Oroitzapen» eta «Emakume». Gainontzeko sei kantuen hitzak gureak dira.

25 urte inguru herriz herriz kantari. Nola ikusten duzue kantagintza egun?

Publikoa galdu du. Jendea geroz eta gutxiago joaten da kantaldietara. Iparraldean, gainera, ez da entzule gehiegirik. Hala ere, irratirik ez zenean ere kantaldi arrakastatsuenak 600 lagun biltzen zituen hemen. Irratia ez zegoenean kantaldira joan beharra zegoen taldeak en-



Joanes Borda eta Beñat Sarasola dira Guk taldearen sorrerako kantariak. (Arg: A. Elozegi).

tzutera. Orain goizean gure kantekin hasten dira ardiak jezten.

Rock kontzertuek kendu al dizuete lekuri?

Gazteriaren gustuak aldatu egin dira: orain nahiago dute rocka. Rockak bere publikoa badu eta egia da folk mailan edo kantu tradizional mailan entzuleak gutxitu direla. Ez da txarra hori. Orain jendea hurbilazteko, kantaldiak ona behar baitu izan. Ez da pentsatu behar soilik rockaren errua denik. Kali-

tateari ere begiratu behar zaio. Kantaldia ona bada jendea etorriko da. Iparraldean, bestalde, arazo larria dugu areto gabeziarekin.

Zenbat kantaldi eskaintzen dituzue urtean?

20ren bat. Aurrekontua kontuan harturik ziur aurten gutxiago direla. Larrañera joan behar dugu eta han izugarritzko arazoa sortuko da. Larrañen 200 arima dira; kantaldia antolatzekotan, kanpotik jendeak etorri beharko du aretoa betetzeko.

Aurrekontua, berriz, 11 mila liberakoa da gure buruak ordaindu gabe, soilik musikariak eta gainontzeko elementuak ordainduz. Eta noski, herri txiki batean ez dago hortik etekin ikaragarrikerik ateratzerik.

Zein etorkizun du euskal musikak?

Irratiek asko laguntzen dute horretan. Euskal musikaren egoera euskal kantariak egiten dutenetik dator. Euskaldun kantari bakoitzak autokritika egin behar du, ea

daramatzen urte horietan guztietan zein bide egin duen eta ea hobetu daitekeen.

Zuek egin duzue autokritika?

Honelako diskoa egin eta beste musikari batzuk onartzea da autokritikaren emaitza. Noski, gu ez gara profesionalak eta musika ondo egiteko denbora igaro behar da, baina Guk-en lehen diskoa eta orain aterako dena entzunez gero... honetan hutsak badira, baina hobetu da. Bakoitzak hori egiten badu kantagintzak ez du beldurrik ukanen.

Luzaroan izango al da Guk?

Bizarra zuritzen hasia zaigu. Baina taldeak jarraitzen ez badu ere, gisa honetako talde batentzat sail horretan bada lekuri. Soilik taldearen onerako bada jarraituko du. Azken diskoaren modukoak eginez gero bai. Historia egin? Eusko Jaurlaritzak atera duen entziklopedia bat ikusi dugu. Bertan, Guk taldeaz geroztik sortutako hainbat talde aipatu arren, gutaz ez da hitz egiten. Eusko Jaurlaritzarekin ez dugu harreman onik. Hitzekin bada zeozer, ez dituzte gustukoak nonbait...

MAITE ARTOLA

Euskal Herria, 60. hamarkada. Pertsonaiak: liburu argitaratzailea, zentsorea...

emon *biar* yako


*INIGO ARANBARRI*ren nobela, **SUSA** literatur argitaletxeak plazaratu berria

Juan Inazio Iztuetaren omenezko «Dantzarien maisu» liburua idatzi du Jose Garmendiak

«Iztuetak egiten zuen bat esan eta bestea eman»

Juan Inazio Iztueta zaldibitar dantzari eta idazle ospetsuaren heriotzaren 150. urtemugan, bere herrikide eta biograforik garrantzitsuena den Jose Garmendia bisitatu dugu erromantikoko zenaren bizitza eta obraren mataza askatu nahian.

JOSE Garmendia Arruebarrena 1925ean jaio, Gasteizen apaiztu 50ean, Erroman ikasketak egin, eta laister zen Andaluzian, mixiolari eta irakasle gisa. Hainbat artxibo arakatuz (Indietako Artxibo Orokorra batipat), idazle emankorra gertatu da hamarkada batzutan. 36 ur-



«Txuri» ezizenez ezagutu zitzaion Juan Inazio Iztuetari.

teren buruan erretiratu eta Donostian bizi da orain.

1945ean herrikide zenuari egin zitzaion omenal-

diko programa osoa idatzi zuen. 67an folklorezalearen jaiotzaren 200. urtemuga ospatu zen eta orduan artikulu

andana bat idatzi zuen Garmendiak hemengo prentsan. 68an dantzariaren testamendu eta bere ondorengoen paperak aurkitu zituenean konturatu ahal zen arrazoirik aski hazegoela Zaldibia, Goierri eta Gipuzkoako mugak gainditzen zituena pertsonaiaren bila berebizikoak egiteko.

68an Iztuetaren lan ineditoak argitaratu zizkion Añamendik, zaldibitar polifazetikoari buruzko libururik garrantzitsuena. Hor aditzera eman zituen zertzelada ugari: lagunekin trukaturako kartak, bere hiru emazteei buruzkoak, eta zer ez. Oraintxe bertan ez dago beste bat Iztuetaz hainbeste dakienik. Garmendia oso zehatza da, benetazko iturrietara jotzen du: «*Ezin da kontsiderazio orokorrik egin obra ondo irakurri gabe eta hori inork ez du egiten gaur; denbora behar baita*», diosku.

Euskal Herri osoko artxiboak arakatu, nori kopiaturio edo faltsifikazioak aurkitu, gezurrak edo egia osoak ez zirenak ezeztatu

« Dantzari zaldibitarra lapurretatik ez baino ahobero izateagatik kartzelara-tuko zuten. Iztueta sexu ihardueran librea zela, Jesukristo gizon faltsua zela esaten zuten, beste mundua ez zela esistitzen...»

eta zaldibitarren bizitza eta lanak destripatu dituen honek, oraindik dokumentuak aurki litezkeela uste du.

Goierriarraren bizitza eta obra

JUAN INAZIO Iztueta Etxeberria, dantzarien maisu gipuzkoarra, 1767ko azaroaren 29an jaio zen. Ezizenez «Txuri» bezala ezagutu zitzaion, izanez ere hala behar zuen izan eta. 1801 arte artzain eta nekazarien herria zen jaioterrian bizi izan zen. 23 urterekin lehenbizikoz ezkondu zen arteko dokumenturik ez da ageri. 33 urte zituela, Gaintzako eskribauaren etxean lapurreta egitearen aitzakitan atxilotu zuten Ordizian.

1805 bitartean Tolosa eta Azpeitiko kartzelatan egon zen. Kontxesi Bengoetxea ezagutu zuen Azpeitikoan. Ondoren bere zigorra arintzea lortu eta koinatuaren etxera joan zen bizitzera, baina epaiaren menpe. Bi urte geroago Logroñoko Inkisizioaren kartzelan ere pasa zuen bolada bat eta bertan Kontxesiri eskainitako bertso famatuak idatzi zituen. 1815ean hil zen Kontxesi eta, alargun berriro, ondorengo bost urteetako berri gutxi dugu.

Frantsese garaian Iztueta Donibane Lohizunen eta Donostian bizi izango zen eta, nahiz eta bere liburuan frantsesen aurka idatzi, itxuraz frantses joera handiko gizona izan zen. *Afrantzesatu* joeragatik iskanbila

ugarri izan zituen. 1814-15etan zortzi hilabete pasa zituen Tolosako kartzelan eta beste hilabete bat epaiaren menpe Donostiako etxean. 1819an Donostiako Miserikordiako haurrei eskal dantzak irakasten hasi zen. 1824ean Baroja argitaletxeak Iztuetaren «Gipuzkoako dantza gogoangarriak» liburuak kaleratu zuen. 1825ean Londresen liburuaren azalpena egin zuen hara desterraturiko Mendibilek, han argitaratu ziren Kontxesiri eginiko bertsoak.


Gerora zeladore aritu zen Donostian eta I. Karlistada hasita berehala Korrejimenduko Alkaide. Hirugarrenez ezkontzean 60 urte zituen, emazteak 20. Bizitzan zehar ogibide asko aldatu arren, ez zituen dantza-lanak behin ere laga goierriar euskaltzaleak. Karlisten gerratea bete betean zegoenekoan, 1837an, Zaldibiako Aztirriagako etxean zegoen. Azkeneko urteetan asko idatzi zuen eta garaiko diputatu eta agintariekin posta bidezko harreman handia izan zuen. Pultsua alteratua zuela, eskuak dardar batean, eta idazteko eskua ur hotzetan sartu beharrean izaten omen zen. 1845eko abuztuaren 18an, 78 urte zituela hil zen jaioterrian-Iztueta, bere bizitzako idazlana, «Gipuzkoako probintziaren kondaira-argitaratu baino bi urte lehenago eta hiru emazteengandik izandako 11 seme-alabetatik hiru seme soilik bizi zirela.

Gipuzkoako dantzer buruzko liburuan (originala ez da aurkitu), lurralde honetan galtzeaz zeuden 36 dantza eta hainbat eta hainbat ohitura zahar eta herri-kirol jasotzen dizkigu. Gipuzkoaren historiari dagokionean, herrialde honen geografia eta historia ditugu kontagai. Liburuok, biak ala biak, euskara dotorean burutuak dira, «garbizaletasunez» zipristinduak.

Iztuetaren bizitza eta obrari ikuspuntu askotatik begiratu lekieke. Baina, iritsi zaigun ezaugarriarik nabarmenetakoa bere izate folklorista da, dantzen zabal-tzaile izatearena eta, denen gainetik «Gipuzkoako Dantzak» liburuaren egilea izateak damaio ospe berezia. Horrekin aurre hartu zien bere garaikideei eta esan daiteke Europako lehen folklorista dugula.

Figura oso interesgarria

BEGIRATZEN diogun ikuspunturik begiratzen diogula, ez da lan erraza Iztuetaren bizitzaren berri bi hitzetan ematea. Fausto Arozenak «*figura guztiz interesgarria*» zela idatzi zuen aspaldi. Aita Villasantek, berrikiago, «*euskal arrazarekin eta bere adierazpen ja-*



torrenekin identifikatzen den gizonaren prototipoa dugula». Pentsa, Madozek «*Iztueta ospetsua*» aipatzen du 1850 aurretiko bere hiztegi historikoan.

Garmendiaren ustez, «*Iztueta da gebien sustraitu zena bere garaian Euskal Herrian eta berai gebien defenditu duena. Herriko seme jatorrena. Lan asko egin zuen 'Diccionario Vascongado' eta gainontze-koak burutuz. Bera da le-*

1995

II. IGARTZA

abentura eta misteriozko

NOBELA LEHIAKETA

Antolatzailea: Beasaingo Udala

Babeslea: **CAF** CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.



Garmendiak Iztuetaz liburu mordoa kaleratu du. (Arg: A.

ben euskal idazle laikoa.

Bere merituz jaso eta beregin ahal izan dira euskal dantzetako asko. Iztuetaren irudiaren ezagupideari dagokionez, 1929ean Eusko Ikaskuntzak eskaini zion omenalditik asko aurreratu da, zabalkunde lan handi eta ona egin da orohar, «baina dantzen liburua oso zaila da eta inork ez du ikerketa senioririk egin gai horri bu-

ruz».

Jose Garmendiak dioskunez, Iztueta irakurtzen jakin behar da: «*Aintzina-aintzinatik*» dioenean, goial ez da hainbestearainoko. Orduko orainaz ari denean, ordea, egiarekin zebilen. «*Esaten duena baino gehiago isiltzen du, dakiena ezkutatzen du Iztuetak; frantziar eta bizkaitar dantzak ezagutzen ditu, baina Gipuz-*

koara mugatzen, entzerra izen da idazlea. Datu falta eta misterioa da nagusi. Meritua dauka bere garaitan inork jasotzen ez zuena jaso zuelako, egimerokoa, garai bat isladatzen digulako. Bere garairako baino ondorengoentzako idatzi zuen gehiago».

Gorriak ikusitako txuriarenak

DANTZARI goierritarra, lapurretatik ez baino ahobero bat izateagatik kartzelaratuko zutela uste du ikerlariak, sexu ihardueran bera libre zela eta emaztea ere bai. Mezetara jendearen ahoetan ez ibiltzeagatik joaten zela, Jesukristo gizon faltua zela, beste mundua ez zela esistitzen... eta abar esateagatik. «*Hori orduko euskal giro hartan oso gogorra zen, baina pentsatzen zuena esatera ausartu zen gizona zen eta motibu moral eta doktrinalengatik auziperatuko zuten. Iztuetatarren lapur fama aipatu izan da, baina ez dago daturik Gaintzako Aldasoro eskribautari lapurtu ziola esateko*». Kasua da, ohizko legeditik ez, baino inkisiziopekotik epaitu zutela eta Juan Inaziok bere aldetik ere salatu zuela bere salataria, Etxabe, Zaldibiako bikarioa.

«Tutueta faltsu samarra da, zeren eta euskaraz baino ez zekiela zioen eta gero prentsa frantsesean bai edo bura irakurri zuela dakar. Timante galanta: «Ezbehar txiki bategatik ez nuen berisolari lehiaketan egoterik izan» dioen bitartean, ezbeharra kartzelan egotea zen. Adibidez, eztabaida izan zen Gipuzkoan abuntzen arazoa mediante: batzuk abuntzak akatzearen alde zeuden, txikizioak egiten zituztelako; beste batzuk abuntzen aldekoak ziren. Zer egiten du Iztuetak? «Nik zerbait badut idatzia, baina batzuen gozamenarako eta bestetzuen saminerako izango denez, isil-isilik uzten dut gauza».

Fernando VII.ari buruz idazten duenean bere alde idatziko du, «*sekulako diti-ranbo eta laudorioak, baina gero «egurra» ematen dio. Bat esan eta bestea eman».* Ez liberal eta ez karlista geratu nahi du Iztuetak. Bere bizitzako lehen zatian errebeldea eta polemikoa izan zena zentzatu eta zintzotu egin zen gerora, moldatzen jakin zuen eta ez zen erre. Guztiaren gainetik umore ona gordetzen jakin baitzuen.

JON MIKEL ARANO



Argi ikusten ez baduzu, zatorz MULTIOPTICASera. Zure eguzkitako betaurrekoak preziorik distiratsuenen graduatuko dizkizugu. Montura eta graduaturiko kristalak **9.800 pezetan**. Argi ikus dezazun. Eta beti MULTIOPTICASen garantiarekin, zure zerbitzura 450 baino optika gehiago dituen 1. mailako Zerbitzu Optikoa.

9.800 PEZETAN

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
 ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Hernani, 4 - DONOSTI

Jada amaiturik dago bigarren edizioaren prestaketa

Zinema zabalaren eremua

Uztailaren 3tik 8ra burutuko da eremu urriko hizkuntzetan eginiko filmeei buruz mundu osoan antolatzen den zinemaldi bakarra, jatorrizko hizkuntzan emana alegia. Zarauzko Modelo zinema-aretoa izango da, iaz bezala, egoitza. Sail ofizialaren kalitatea igotzeaz gain, helburua beste ekitaldi paraleloak antolatzea da. Mikel Erkiaga, Eremuak '95eko gerentearekin mintzatu gara aurtengo edizioaren berri izateko. Itxaropen handiz ari dira lanean eta aurten ere ikusleen onarpena izatea espero dute. Iazkoarekin parekatuz, kalitateari emaniko lehentasuna da aipagarri.

ZARAUZKO Turismo Bulegora hurbildu gara datorren uztailaren 3an zabalduko den zinemaldi berezi honi buruzko informazioa bilitzeko asmoz. Bertako bulego batean hiru hilabeteko epe murrizta dute Mikel Erkiaga gerenteak eta Gemma lankideak antolakuntza zabalari aurre egiteko.

Zinemaldia hazteko beharra argi dute, filme gehiagoren artean sail ofiziala osatuz eta bere itzalera hainbat ekintza antolatuz. Mikel Erkiagak oso baikor begiratzen dio aurtengo edizioari: «Iaz zortzi filmeren artean aukeratu genuen, aurten bamar izango dira, kalitatearen arabera aukeraketa egin ondoren; horietatik bostek hartuko dute parte sail ofizialean eta oraindik erabat zebaztuta ez badaude ere -Cannesko Zinemaldian bainbat ba-

tzar izan ondoren osatuko dugu behin-betiko programa-, bonako jatorria izango dute seguruenik parte-hartzaileek: kurdua, frisia-rra, eskoziarra, Malikoa («Guimba» izenekoa, bambarā hizkuntzaz egina eta Burkina Fason L'Inalco zinemaldiko sari nagusia lortu du) eta besteren bat».

Euskal ordezkariak ez

SAIL nagusian filme bat eskainiko da egunero, gaueko 10,30etan. Aurten ere euskal ordezkariak ez da izango, «ez nabi ez dugulako, euskaraz egiten ez delako bai-

zik; gainera, egiteko proiekturik ez dugu ezagutzen». Beste ekitaldien garrantzia azpimarratzen dizkigu Mikelek. «Finlandiako mende bonetako zinemagintzari eskainiko diogu lehenengoa, suomieraren aldeko borrokaren lekukoa baita; lau filme emango dira arratsalde, kalitate handikoak».

Bestetik, astelehenean omenaldia egingo zaie iaz zinemaldira etorri eta hil egin diren Txano Piñeiro (ikusleen saria jaso zuen) zuzendari galiziarra eta Ovidi Montllor epaimahaikideari; larunbatean, haurrek

■ Sail ofizialaren kalitatea ziurtatzeaz gain, edizio honen helburu nagusia beste ekintzak antolatzea izan da: Finlandiari buruzko zikloa eta mahaingurua, kale-musika, haur-filmea, eta abar

marrazki bizidunetz eginiko filmea ikusi ahal izango dute; kale animazioa -Finlandiako talde folk batek joko du hondartzan- eta erakusketa ere antolatua dute Munda jauregian, euskal zinemagintzari buruz.

Honezkero hainbat herrik interesa agertu dute Zarautzen ikusgai izango diren filmeak beren udalerrietan eskaini ahal izateko, «zebatz-mebatz Zeanuri eta Eibar hurbildu zaizkigu». Larunbatean, sail ofiziala jada amaiturik, filme berezia eskainiko da lehiaketatik kanpo, klausura-ekitaldian, «Latcho drom» («Ondo joan-alegia), ijituek hamaika herritan beren bizimoduaren gainean egina; hitzik gabea da, musika eta dantza soilez burutua.

Miguel Castelo galiziarra izango da epaimahaikidea -Bilbon laburmetraien zinemaldia irabazi zuen-, agian Hugo Klaus flandiarra eta besteren bat -Quim Monzo, Pere Portabella...-.

Aurrekontua iazkoaren bidetik joango da, 20-25 milioi inguru (milio bat libera inguru), ez da zabalagoa izango. «Oso zaila dugu baliabide horiekin antolaketak burutzea, barremailan inportantea delako



Mikel Erkiagak beharrezkoa ikusten du eremu urriko hizkuntzetako zinema eskaintzea, merkatuzirkuitura heltzeko. (Argazkia: R.L.).

urte osoan norbait aritzea».

Eremuetan emaniko filmirik ez da sartu merkatuzirkuituan, «baina horixe da gure asmoa, urte luzeko lanarekin lortzeko, merkaturia sortzea arreta deituz».

Honelako ezaugarriak dituen zinemaldi batek, eremu urriko hizkuntzez eginiko zinemagintzari eskainirik, hedapenerako dituen aukeren artean, telebista publikoarena planteatu diogu Mikel Erkiagari. «ETB sari nagusiaren babesle da eta

garrantzia luke bertan ikusleei filme irabazlea ezezik, kalitatezko beste hainbat ere eskaintzeak. Garestiak ez eta, zirkuitutik kanpokoak direnez, interesgarri

■ Arazo nagusia filme egokiak aurkitzea da: zinema-formatoan, fikziozkoak eta 35eko neurrian

dira. Gainera, FORTARI eskainiz gero merke izango lireteke». Badirudi ETBk aurtengo ediziorako iazko filme saritua eskainiko duela.

Antolatzaileen lanari esker, hedapen zabala izan du zinemaldi honek, «ezin gara eremu batera mugatu, Europa mailan adididez oso aukera eskasa dagoelako; kontuan hartu behar da baldintzak izugarri muga-tzen duela ekoizpen-mota: 35 milimetrotan egina behar du, zinema izan eta

fikziozko istorioa kontatu behar du; beraz, ez bide-roik, ez dokumentalik».

Ikusleen iazko erantzuna baikortzat jotzen du Erkiagak eta hedapena zabalagoa izatea espero. «Iaz izandako oihartzunari esker orain badakite zer den Eremuak jaialdia; iaz erabili logotipoa zinemaldiaren ikurtzat hartuz, aurtien berehala lotuko dute eskaintzen dugun zinema-motarekin».

RITXI LIZARTZA



EZPELETAN

MAIATZAK 27a, larunbata

LUDWIG VON 88

ZARAMA

azkena
Ipar Euskal
Herrian

+ ERROMERIA
Alaitz eta
Maiderrekin

Izanen da edateko eta
jateko

Antolatzailea: *Bideak*

Laguntzailea:  ARGIA

UDARREGI BERTSOLARIAREN MENDEURRENA USURBILEN

MAIATZA - EKAINA - UZTAILA

ZAHARKINAK ERAKUSKETA

Lekua: Udarregi Zaharrear, zabalik Ekainaren 3arte

REMIGIO MENDIBURUREN OMENEZKO HERRIKO ARTISTEN ERAKUSKETA

PARTAIDEAK: - J. Luis Zumeta
- Alejan Tapia
- Karlos Zabala "Arrastalu"
- Gillermo Arbeloa
- Patxi Txiki
- Amaia Kasasola

LEKUA: Motzaeneako azpian, zabalik Uztaileko San
Isabelak-arte




SAGARDOTEGIA 
ASTIAZARAN
JUAN IGNACIO ASTIAZARAN
Zubieta auzoa - Tel: 36 12 29 - DONOSTIA (Gipuzkoa)



ILLUNBE
sagardotegia
San Esteban auzoa
20170 USURBIL
Tel: 37 16 49
37 16 52

ARRETA
SAGARDOTEGIA

ARBITZA BIDEA
36 20 49 - 36 66 04
20160 ZUBIETA

GINAGA TXOTXETIK
SAGARDOTEGIA 
URTE GUZIAN
astelehenetan ezik egunero irikia

Tel.: 36 22 28 - Faxa: 36 64 12

SAITZA
Restaurante - Sagardotegia


URDAIRA
SAGARDOTEGIA
Urdaira Baserria
Telf.: 37 26 91
AGINAGA
20170 USURBIL

LIBURUAK



«ARROKA KALEKO
IPUINAK»
PIERRE GRIPARI

ITZULPENA: FELIPE
JUARISTI

DESCLEE, 115 or.

Pierre Gripari Parisen jaio zen 1925ean. 20 liburu baino gehiago argitaratu dituen arren, hau-gazteentzako ipuin bilduma hau besterik ez du idatzi.

Arroka kalea berezia da oso. Duela zenbait urtetik, han dabil harat eta honat Pierre, itxura harrigarria duen idazlea. Auzoko neska-mutiek ikusten dutenean oihuka hasten dira: «Sorgina!». Fantasia, samurtasuna eta umorea gailentzen dira, zazpi ipuinez osatutako liburu honetan ●



«IZAR BAT NAIZ»
INGE AUERBACHER
ITZULPENA: JUAN KRUZ
IGERABIDE
ELKAR, XAGUXAR 103 or.

Inge Auerbacher, judutar familia bateko alaba bakarra, Alemanian jaio zen 1933ean. Zazpi urte zituela, Terezingo konzentrazio-esparrura eramán zuten eta hiru urte igaro zituen giza-infernu hartan.

«Jude» jartzen zuen izar bat beti bistan eramatera behar-tzen zituzten judutarrak zirelako. Hortik datorkio izenburua liburuari. Dena dela, beste askok izan ez zuten zortea izan zuen Ingek: bizirik irtetekoa. Liburu autobiografikoa da hau, fikziorik gabekoa, eta gertakizun latz haien argazkiz hornitua dago ●

MIKEL ELORZAREN BEGIETAN

Bidaia arrazionalista

Orain bost urte Irun saria irabazi zueneko gai bera darabil Sodupek: modernitatea, ilustrazioa. Eta saria irabazi liburu honekin ere, «Pedro Axular»-hain zuzen, agian saiakera argitaratu edo idazteko beste modurik ez baitago.

«Ilustrazioaren kriselupean» liburuak azpiztitulua du. «Argi berri bila Frankfurtan», eta horrek adierazten lanaren mamia. Batipat Habermasen pentsamendutik abiatuz. Sodupek Frankfurtoko Eskola deitutakoaz dihardu. Modernitatea eta arrazionaltasunaz hasierako azalpena egin ondoren. Adorno eta Horkheimerren azterketa eta pentsamendu korronteak aztertzen ditu. Hortik abiatuta, eta XX. mendean zehar bidaia «arrazionalista» eginez, azken garaieraraino iritsiko da (Luhman, Apel...), beti ere ardatz berarekin. Sodupek ez du planteamendu soila egiten, liburuak ez da arrazionaltasunaren eboluzioaren erakusle hutsa; areago doa, Sodupek zinez «sinesten» du munduak teori hauek har ditzakeela abiapuntu eta hartu behar dituela aurrera egingo badu.

Hain zuzen, eta gerra ondoren arraziona-

listek garatutako hainbat teoriak porrot egin da «Ilustrazioaren dialektika», komunikazioa, zientzia, eta XX. mendeko munduari egokitu beharreko arazoia garatu beharra aztertzen da. Eta posible da, arazoia unibertsala baita, eta unibertsalak halaber hortik eratorritako balore etikoak. Teoriatik praktikara doan jauzi honek, ispilua badu egungo munduan: sozialismo demokratiko liberala.


Eta Sodupek, dagoen tokitik baina oinarri unibertsaltasun hori hartuta, bertakoaren errespetu eta balioa eranteko saioa egingo du, nazionalismo eta sozialismoaren amai-gabeko borroka plazaratuz egungo gizarte honetara ere. Uztargarri dakuski Sodupek biak, eta antzeko saioa egin izana aitortzen die Ilustrazio garaian Azkoitiko Zalduntxo eta enparatuei.

Euskara irakurgarri batean «saiakerak, leituko bada, gehiago zor dio esateko moduari eduki berari baino», aipatu guztia er analisisa dago Sodupek, eta ondorioak isuri ere bai. Filosofiako obra baina praktika politiko indibidual eta kolektibora aise eramán



ILUSTRAZIOAREN
KRISELUPEAN
JON SUDUPE. ALBERDANIA

daitekeena, sozialismo demokratikoaren inguruan Euskal Herrian dabilzan hainbat mugimenduren adierazgarri izan daiteke, helburua hori ez izanagatik ere.



«UZTARO»

UDAKO EUSKAL

UNIBERTSITATEA, 153 or. Giza eta gizarte-zientzien aldizkariaren 13. alea kalean da. Eta egile ezberdinek idatzirik artikuluak aurkeztu dizkigu Udako Euskal Unibertsitateak oraingoan ere.

Txema Preciadok idatzitako «Koloreen bilakaera: euskal kasua» artikuluak zabaltzen du alea. Horrez gain, zazpi artikulu eskaintzen ditu: «Telana: lan eredu baten testuingurua»; «Eusko Kultur Gaiak»; «Bilakaeraren filosofia. Gilles Deleuze, filosofo nomada»; «Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea»; «Emakumearen irudia aldizkari femeninoetan»; «Zubereraren azentuaz» eta «Venezuela» ●


«GOENKALE. BIZITZAK ZAINAK LABUR»

ARRALDE TALDEA

ETB, PAUSOKA, 198 or.

ETB-lean lortutako arrakasta ikusirik, kalez gora garamatzan telesailari buruzko liburua idaztea otu zaio Arralde Taldeari: Maite Duque, Santiago Gonzalez, Jorge Gimenez, Felipe Juaristi, Anjel Lertxundi, Eskarne Mujika, Inazio Mujika, Mitxel Murua, Miren Olabari eta Xabi Puerta dira egileak.

Jada ezagun ditugun Arralde eta bizia ematen dioten pertsonaiak paperera aldatu dira, eta liburua, telebistan ikusten dugunaren osagarri bihurtu. Eleberririk telebistako erritmo bizia eta bertan kontaktzen den trama uztartu ditu ●



«V. GERRIKO

IKERLAN-SARIKETA»

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA; MAIZPIDE EUSKALTEGIA; LAZKAOKO UDALEKO KULTUR BATZORDEA EUSKO JAURLARITZA, 169 or.

«Jose Ignazio Gerriko Enatarriga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiares esplicacioaren sayaquera (1858)» Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegaine, Antton Idiakez eta Inaki Rezolak idatzi dute eta lehenengo saria lortu du.

V. Gerriko Ikerlan-Sariketarako deia 1993ko udazkenean luzatu zen, 1994an hiru lan jaso eta 1995eko udaberri honetan bi liburu aurkeztu dizkigute. Uda eta negu parteko lan isilak, udaberri lortu du fruitua ●


«MANUEILEKUONA SARIA :«P. JORGE DE RIEZU»

VIDAL PEREZ DE VILLARREAL

EUSKO IKASKUNTZA, 47 or.

P. Jorge de Riezuren bizitzaren inguruko lana argitaratu berri du Eusko Ikaskuntzak. Vidal Perez de Villarealek idatzitako lan honek atal ezberdinak biltzen ditu: Ezaugarri biografikoak, nortasuna, eta obra batetik Hiru sail hauek euskaraz lehenik eta gaztelaniaz datozkigu beranduago.

Perez de Villarrealek erabilitako bibliografiara iritsi aurretik, «Une gogoangarriak, Momentos memorables» izenburuarekin datoren atalean aspaldiko argazkiak berreskuratu dira ●



AUKERA ZABALA!!



ARGITALPEN BERRIAK

"BI TA BI" BILDUMA

- BI TA BI 5
- BI TA BI 5 (GIDA)

Pasiotarrak - 48290 ● EUBA ☎ 6308036 FAX: 6308028



**«EL VIEJO REYNO.
AMENIDADESCO
GASETA GARBOSA»
LAB**

Komikiez hornituta, eta karikatura bera hizkietaraino iritsiz, ohizkoa ez den grafiaz idatzia datorkigu LAB sindikatuak oraitu kaleratu duen kazeta. «El viejo reyno» izenburupean, pil-pilean dauden arazo ekonomikoei egiten die tarte, kasu hone-tan hezkuntzaren alorrari ●



**«BERTSOLARIAK
POBREZARI JARRIAK»
ZAZPI ESKALE
GOR DISKOAK**

Zazpi eskale eta zazpi izen: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Josu Zabala eta beste lau musikari biltzen dituen ikuskizuna eta era berean kon-

paktoa. Kasualitatearen kari-az eta proiektu amankomun batean sinesten zuten lagun batzuen lan jarraitua- ren fruitua dugu eskuarte- an.

Igor Elortza eta Unai Iturriaga azken urteetako bertsolaritzak izan duen loraldikoak dira eta Josu Zaba-



**NEGU GORRIAK
IDEIA ZABALDU. ESAN
OZENKI**


Gorriaken beste ezaugarri bat, defenda edo erreibindikatu daitezkeen pertsona eta gai guztiak defenda eta erreibindikatzen dira, lehenengo abestitik azkenengoraino.

Aurrerapauso bat azken finean lan berri hau, bide berriak jorratzeko zaharrak sendotu baitituzte. Badago oraindik nondik eta nora jo, ikararik ga-be estilo berriak jorratuz, baina diskoaren abesti baten izenburua hartuz, begurunearekin.

Letretan ere, nola ez, Negu


Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



Euskal Herriko ekosistema eta ezaugarriak erakutsi nahi ditu «Lurraren Arnasa»-k.

Lurralde euskaldunaren aberastasuna

Euskal Herrian dauden ekosistema desberdinak erakusten ditu «Lurraren Arnasa» saioak, EAEkoak batez ere. Nafarroan gutxi eta Iparraldean ez dute irudirik grabatu. Noreste produktorak hiru urtez lan egin ondoren, 23 atal interesgarri eskainiko dizkigu Euskal Telebistak. Gure lurraldea hobe ezagutzeko material aberatsa da saio honetakoa.

ASTE honetan, «Lurraren Arnasa» dokumental saioaren «Estuarioak» izenburua duen atala ikusiko dugu. Apirilaren 24an hasi zen emititzen, baina esku artean lan hau duen produktora, Noreste produktora, duela hiru urte hasi zen proiektu honetan lanean. Lan taldeak etenik gabe lan egin du hiru urte hauetan. Lurraren arnasa 23 kapitulu osatzen dute, baina oraindik ez daude denak bukatuak, zenbait kapitulutako irudi batzuk grabatzea falta da.

Euskal Herriko natura herriari ezagutaraztea da saio honen helburu nagusia. Ingurugiroa, klima, lurra, flora, animaliak... Estilo eta helburu didaktikoa duen saioa da. Produktorearen zuzendariaren ustez, «*maila bonetako lana egiten den leben aldia da, butsune gutxi duen seriea baita*».

Euskal Herriko natura erakutsiko duela dioen arren, Iparraldean ez da irudirik grabatu eta oso gutxi Nafarroan. «*Leben batez ere, arazo dexente zeuden li-*

parraldera joateko, eta gertutasuna dela eta irudi gehiago hartu ditugu bemen inguruan, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan; ez dago beste arrazoirik», argitu digu produktorako zuzendariak.

Grabatzera joan aurretik dokumentazio lan handia egin beharra dago eta atera baino lehen, zer eta non grabatuko den ondo zehaztu behar da. Hau dela eta lana ez da atalka egin, orokorrean baizik. Duela bi urte harturiko irudi batzuk, esaterako, atal batean noiz sartu

itxoiten daude artxihoan. Ez da irudirik hartu beste inondik, beraz, saioan agertzen diren irudi guztiak saio honetarako zehazki hartuak daude.

Baimenak eskatu beharra

IRUDIAK grabatu ahal izateko baimena eskatu behar izan dute behin baino gehiagotan, eta orokorrean ez dute inongo arazorik izan. Arrantza elektrikoa nola egiten zen erakusten zuten irudiak grabatu nahi izan zituzten baina ez zuten honetarako baimenik lortu. Hala ere, orain arte inoiz grabatu ez diren irudiak hartzea lortu dute.

Lan talde nahiko handia da, baino guztiek ez dute batera lan egiten. Aurkezlea, adibidez, noizbehinka joaten da grabatzera. Joseba Arrizabalaga da lan talde honen gidaria, saioaren zuzendaria, errealizadorea eta kamera da aldi berean.

Entregatzen duten kapitulu bakoitzeko 2.157.000 pezeta ordaintzen die ETBk. «*Gure produktorearen kalitate eta prezioaren arteko erlazioa ezin hobea da, produktua, basieran uste zena baino hobea dela pentsatzen dut*», azaldu digu Noreste produktorearen zuzendariak.

Kalitatea ona den eta gustoko saioa duen hartzeko erabakia ikuslearen esku dago. Audentzia baita, azken batean, saio baten arrakasta edo porrota bideratzen duena. Beraz, astelehenean, gaueko hamaika terdian, ETBren lehenengo katea piztu eta ordu erdiko saioa ikusi ondoren, bakoitzak eman dezala bere iritzia.

AINHOA GERRA

Koldo San Sebastian: «Euskara antipodatan ere bizi da»

Bost urte daramatza Koldo San Sebastianek ETBn. «Zaharrak berri» saioa egin zuen, «Hamar urte luze» ondoren, eta «Euskal Herritik» bidaiatzen hasi zen duela bi urte. Telebistan lan egiteaz gain, Euskal Herriari buruzko zortzi liburu idatzi ditu. Exilioa jasan duten euskaldunak ere oso ondo ezagutzen ditu, eta bi liburu ditu gai honi buruz.

Nola definituko zenuke «Euskal Herritik» saioa?

Euskal Herriko jendearen eguneroko historia.

Hau bezalako saioa egiteko zer da garrantzitsuagoa liburutegi ona ala asko bidaiatzea?

Euskadizalea naiz eta niretzat Euskadi ezagutzea da abertzaletasuna. Euskal gaiari buruzko liburutegi ona

behar da, baina euskal jendea da garrantzitsuena. Euskal jendea oso euskalduna da eta horregatik posible da «Euskal Herritik» egitea.

Galtzeaz dauden obiturak jaso dituzute?

Gauza asko galtzen dira egun, baina ez soilik politikari buruz. Komunikabide modernoak oso arriskutsuak dira. Egungo kultura an-

glosaxoia da eta kaikua, txistua eta txapelak galdu dira. Egutero, piska bat amerikarragoak bilakatzen gara.

Gai historiko-politikoetatik etnografikoak aztertzeraz pasatu zarete, zergatik aldaketa hau?

Nire ustez historia, historia etnografikoa da eta ez politikoa. Euskara Aturri eta Ebro ondoan dago, baina politikoki ez. Nafarroa eta Iparraldean banatzen dira baina kultura bakarra da eta euskal kultura eta etnografiari buruzkoa da gure programa.

Ba al duzue kapitulu berezirik esku artean?

«Euskaldunak Australian» programa egiten ari gara. Komunitate euskaldun oso handia dago eta ekainean hara joango gara. Australiako komunitateak ehun urte dauzka eta oso garrantzitsua da. Euskara hantxe ere bizi da, antipodatan. Euskaldunak edonon bizi gara, piska bat 'galegoak' gara.

Erraza al da euskara berrindik kanpo mantentzea?

Parisen neska ukrainiar bat topatu dugu. Aita ukrainiarra eta ama Nafarroa Beherekoa ditu eta bera euskalduna da. Ama hizkuntzak pisu handia dauka.

TXORI BATEK

ESAN DIGU

ETBren udako

programazioaren


datu zehatzik ez da oraindik ezagutzen. Beste urteetan, garai hau iristean, zehazki ez bada ere, udan ikusi ahal izango dugunaren datu batzuk izan ohi ditugu. Baina aurten berandu dabilta eta bertako langileek ere ez dakite ezer. Hauteskundeak eta «INPUT» direla eta, arduradunak honetaz arduratu direla eta programazioa zertxobait abaztu egin dutela entzuten da ETBko pasabideetan. Aldaketak ere izan dira ETBko organigraman, baina hau ez da arrazoi nagusia, oso zentratuak ez daudela eta prebisioak lotzeko denborarik ez dutela izan ere aipatzen da.

EITB eta Euskal bizikletak akordioa

sinatu dute. Ekainaren 7tik 11ra, EITB Euskal Bizikletaren 5. ekitaldia eskainiko du. Eguerditan zuzeneko konexioak egingo dituzte eta zuzenean emango dute etapa bakoitzaren bukaera.


INPUT-en, Europan satellite bidezko telebista publiko

proposamena luzatu du Mondial Television-ek. Satellite bidezko telebista publikoak abian izateko, asko jota hamar urte igaroko direla azaldu zuen Erresuma Batuko Channel Four telebista kateko zuzendariak. EEBBetako konpainia handiek telebista merkatuan duten nagusitasuna murrizteko bide bat dela uste dute telebista publikoetako arduradunek.



«Komunikabide modernoak oso arriskutsuak dira».

AINHOA GERRA



■ Urdaibai eta Arrasateko Kooperatiba «Urak dakarrena» saioan

Osteguna hilak 25ean, eta bostak hamar gutxiagotan Urdaibai itsas adarrean topa daitekeen naturaren edertasuna eta gizakiaren eraginarekin garrantzia erakutsiko digu «Urak dakarrena» saioak.

Ostiralean, eta aurrekoa baino bost minutu beranduago, laugarren atala izango dugu ikusgai. «Arrasate bat hirutan» izenburua duen atal honetan, Arrasateko Kooperatiba eta enpresa sistema honi buruzko ezaugarriak zabalduko ditu.

Astean bitan, Euskal He-

rriko txoko ezagunak eta ezegunak hobe ezagutzeko aukera izango dugu «Urak dakarrena» programari esker.

■ Maiatzaren 28ko hautagaiekin elkarrizketek jarraitzen dute ETBn

Maddalen Iriarte eta Xabier Euzkitzek zuzenduriko «Hauteskundeak 1995, hautagaiekin elkarrizketan» saioan, hautagaiekin hitz egiten jarraituko dute aste honetan.

Gaueko hamar t'erdietan, «Goenkale» ondoren, PSE-EEko hautagaia izango da ostegunean, eta EAJkoa, ostiralean. Asteazkenean, berriaz, Maddalen Iriartek zuzentzen duen «Hauteskunde eztabaida» eskainiko du ETBk.

Hauteskunde egunean, arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera eta emisioa bukatu bitartean, udal eta biltzar nagusietarako hauteskun-

deen inguruko saio berezia izango da ETBn.

■ Munduko boxeo borroka onenak ostiralgauean

Pedro Mari Goikoetxeak zuzenduriko «Boxeo Izarrak» saioak, nazioarte mailako borroka onenak ematen ditu ostiralero. Berarekin batera, Manu Maritxalar boxeolari ohiak borroka hauen komentario interesgarriak egiten ditu ordubetez. (Ostirala, 26a, 00.35etan).



■ Barcelona-Real Madrid norgehiagoka ETBren eskutik

Arratsaldeko seietan eskai-

niko duen 2. mailako futbol partiduaren ondoren, «Gaur Egun» tartean dela, Espainiako ligako norgehiagoka interesgarria eskainiko du «ETB Kirolak»ek. Barcelona eta Real Madrid taldeek jokatuko duten partidua, alegia. (Larunbata, 27a, 20.55etan).



■ «Atmosfera zero» filmea ikusgai

Peter Hyams-en filme honetan, Sean Connery O'Neill Seguritate Federal Zerbitzuko kidea da. Jupiterreko hirugarren ilargian jazotzen ari diren gertakizun arraroak ikertzea izango da bere lana. (Larunbata, 27a, 23.00etan)

Z A P P I N G

Zarauzko asteburueta giroa aldatu ote den aztertuko dute ZTBn

Astelehenean ostegunera bitartean, 19.15, 20.15 eta 21.15etan, ZTBk «Azken ordua» albistegia eskaintzen die zarauztar herritar guztiei. Oraingo honetan, hauteskunde kanpainaldia dagoeneko hasi denez, Zarautzen egingo diren ekitaldi politiko guztien berri emango dute Idoia Etxeberria eta Itziar Iturriak. Ostiral eta larunbatean, «Bost egun» albistegian, aurretik aipaturiko informazio guztia sakonduko dute.

Asteazkenean, eta aurrerago aipaturiko ordutegi berean, izango da zer ikusi Zarauzko Telebistan. Gazteei zuzendurik, Agustin Ezenarro eta Ione Alberdik aurkezten duten

«Oraingo gazte hauek» saioan, malekoian zeuden eta bota dituzten tabernak direla eta, Zarauzko aste bukaereta giroa aldatu den jakiten saiatuko dira. Horretaz gain, beti bezala, gazteen ikasketen atala eta gazte agenda eskainiko dute. Saio hau ostegun eguerdian eta 13.15etan errepikatuko dute.

Donostiako fakultateetako gai interesgarrienak jorratzen ditu egunero Ikas Telebistak

Donostiako fakultateetara joan, grabatu eta astelehenean ostiralera bitartean, zortzi bat erreportaia eskaintzen ditu Ikas Telebistak, arratsaldeko zazpi t'erdietan egunero.

Asteazkenean, kulturari zuzenduriko atalean, Miel Hernandez Abadia idazlea elkarrizketatuko dute. Segidan, Magisteritza fakultateari egingo diote bisita.

Ingeniaritza eta Informatika fakultateetara joateko aukera izango dugu ostegunean. Lehenean, uztailako azterketen buruz hitz egingo dute bertako ikasleekin, eta bigarrenetan, berriaz, Julio Gonzalez Abascalekin, fakultatean dauden arazo nagusiak zeintzuk diren aztertuko dute Ikas Telebistakoek.

Azkenik, Arkitektura fakultatean izango dira ostiralean. Xabier Unzurrunzaga katedradunak bertan eman berri duen «Maya eta azteka kulturetako arkitektura eta hiri espazioa» izenburuko hitzaldia emitituko du telebistak.

Herriak egiten duen irratia

J oan den maiatzaren 11n, lau urte bete zituen Oñati Irratiak. Ordubete emititzen hasi ziren eta egun, hiru orduko emisioa dute. Ez dira ordu asko, baino bertako informazioa zabaltzeko nahikoa dela uste dute irratiko arduradunek.

EZ dute medio handirik. Bi lagunek daramate Oñati Irratiaren ardura, egun osoz bat eta erdiz bestea. Egoera hau izanik, hogeita bost kolaboratzaileek duten garrantzia izugarria dela ukazina da.

«Ikastaroak antolatzen ditugu herriko jendeak irratia barrutik ezagutu eta beraiengan zaletasuna sortze-

ko. Herriak egiten duen irratia da geurea», azaldu digu Miren Urkiola irratiko arduradunak.

Zabaltzen duten informazioaren ia %100 Oñatiri buruzkoa da. Herrira begira beti. Oso argi daukate ezin dutela medio gehiago duten irratiekin konpetitu eta bertako informazioak entzuleak erakartzen dituela ere



Kolaboratzaileek garrantzia handia dute Oñati Irratian.

badakite. *«Munduan gertatzen dena jakin nabi duen entzuleak ez du Oñati Irratia entzungo, beste bat jarriko du. Guk beste irratien osagarria eskainten diogu», aitortu digu Mirenek.*

Eguneroko plantila handiagoa ziurtatu nahi dute. Hiru ordu emititzea nahiko dela uste du Mirenek, *«pro-*

duktua bobetzeko jende eta medio gehiago da». Duela bi urte egindako inkesta bate-tako datuen arabera, gutxienez Oñatiko biztanleen herenak entzuten du Oñati Irratia. Oso ondo dago baliabide gutxi duen irratia bantentzat.

AINHOA GERRA

B A G A K

■ Ziara Enbeita bertsolaria Bizkaia Irratian Egunero, hamabietatik hamabi terdiak bitartean, «Eguneko gaia» izena duen atala dago Bizkaia Irratian eta bertsolari bat gonbidatzen dute. Ziara Enbeita, Jon Enbeitaren alaba da aste honetako gonbidatua. 13.30etatik aurrera, Bizkaiko Batzar Nagusiko lehendakariarekin, hitz egingo dute erakunde honi buruz.

Osteguna, hilak 25ean, Errenta aitopenari buruzko ordu erdiko saioa eskainiko du Bizkaia Irratiak, 12.30etan. Eta ostiralean, 13.15etan, Euskararen erabilpide traketsak nola zuzendu

erakutsiko digu Adolfo Arejitak.

■ Bi saio berri Irurietako Xorroxin Irratian Duela hilabete bi saio berri hasi ziren Xorroxin Irratian. Asteartero, jubilatuentzako saio bat egiten da arratsaldeko seiak eta zortziak bitartean.

Asteazkenetan, berriz, bederatzitertietatik hamarretara, Irulegiko Irratiarekin saio bat egiten dute elkarlanean. Kultura, nekazaritza, politika, ekonomia... gai desberdinez hitz egiten dute bi irratietako hizlariek. Joseba Igerabide eta Goizalde dira Xorroxin Irratiko hizlariak eta Jojo Biddart Irulegikoa.

A U R P E G I A



Josetxo Apezetxea (Xorroxin Irratia)

Duela hiru urte, Xorroxin Irratian sartu zenean, ez zuen irratia batera eza gutzen, ezta entzuten ere. Kasualitatez hasi zen irratigintzan, *«nire bila etorri ziren eta baitezkoa eman ondoren, hemen jarrai-*

tzen dut oraindik», azaldu digu.

Gazteei zuzenduriko gaueko «Karakola segi hola» saioa egiten hasi zen erratzuarra, eta duela bi urtetik hona, goizeko saioen arteko koordinazio lana ere bere gain hartu du. Programazioan hutsuneak daudenean ere, betetzen saiatzen da.

Egun, sei lagun dira irratian lan egiten dutenak (saioetan eta administrazio eta publizitatean), eta emititzeko lizentzia eskuratzea da guztien heburu nagusia. Josetxori etorkizunaz galdetu diogunean, asmo berezirik ez badu ere, bere burua ez duela irratian ikusten esan digu.

MAIATZAK 26 GETXON ostirala ESKULANAK

XII. Eskulangintza Azoka zabalduko da Fadurako polikiroldegian, **Euskal Herriko, Akitaniako eta Kataluniako artisauekin**. 11.00- 14.30 eta 17.00-21.00 artean zabalduko da. 200 pezetaren (7 libera) truke sarrera.

GASTEIZKO GAZTETXEAN KONTZERTUA

Gasteizko Gaztetxean **Noise Hole** taldeak kontzertua eskainiko du. **Talde sorpresa** bat ere arituko da.

DANTZATALDE BRITANIARRA DONOSTIAN

Britainia Handian 1992an sortu zen **DVS Physical Theatre** dantza taldeak

«Strange Fish» dantza emanaldia eskainiko du Maiatza Dantzan-en barruan, L. Newsonen koreografiak. Arratsaldeko 19.30etan hasiko da.

HAURREN EGUNA PAGOLAN

Arballetako Kultur Astearen barruan, haurren eguna ospatuko da gaur Pagolan (Zuberoa). Uztarorekin tintaketa, Gilles Harran-ekin musika eta kirol ezberdinak antolatu dira. Askaria ere banatuko zaie haurrei.

HIRU TRUKU ASTE HONETAN EIBARREN

Eibarko **Euskal Jaiekin jarraituz**, kantaldia egingo da Hiru Trukurekin, Unibertsitate Laboralean, 22.30etan. Sarrerak Deportibon, Makeskuan eta Herrikoan eros daitezke 600 pezetaren (23 libera) truke.



Bideo-gidoien lehiaketa antolatu du Atzegik Euskal Telebistaren lankidetzarekin. Istorioko pertsonaietako batek, nahitaez, adimen-ezindua behar du izan. Hamar hamabost minutuko kontakizuna egin behar da eta azalpen tekniko, pertsonaia, soinu eta efektu bereziak zehaztu behar dira. Euskaraz ala gazteleraz eginda, gidoiak Atzegik Okendo kalean duen egoitzan entregatu behar dira maiatzaren 31 baino lehenago. Gidoia kartazal itxi batean aurkeztu behar da, barruan izen-deiturak, helbidea eta telefonoa adieraziz, eta kartazalean Bideo Gidoien Lehiaketa idatzi behar da.


Biarnoko Ayous lakueta

Euskal Herriarekin iparraldean muga egiten duen Biarnon kokatzen dira Ayouseko lakuak, 2.000 metrotik gora. Lurralde honi egin diogu leku merezi duen ibilaldia proposatzeko.

Biarnon diren Ayous-eko lakuetatik zeharkako ibilaldi honen hasierara iristeko, beharrezkoa da lehenengoz Larun ondoren RN.134 bidea hartzea. Gabas igarota, eskuinera doan bideska hartuta Bious-Artigues aintziraren zeharka joan daiteke, eta hortxe hasi Ayous eta Bersau lakueta igoera. Horretarako, bizpahiru ordu beharrezkoak izango dira.

Biou-Artiguesetik, Pirenea aterbearn parean hasten den landatik hasi behar da gorantz egiten. Bide hau zuhaitzez jositako bailaratxo batean zehar jaisten da malda bat igo ondoren, Biouseko pirinio-uholdea igaro eta berehala. Bide estuak orduan pagadi itxi batean murgiltzen du ibiltaria. Hemendik iritenda, Ayous Col Long-era iristen garenean, Ossauko iparraldeko aldea ikusteko aukera paregabea suertatzen da, ikusmira harriarria baita.

Bideskak berriz ere basoaren zati bat zeharkatzen du eta honen ondoren be-



lardiaren berdeak inguratu-ko du txangolaria. Une honetara iritsita, bistara izango da Ayous-eko lakueta lehenengoa, Roumassot izenekoa. Bide labur baina aldapatsu batek, aurrera jarraituz gero, Mieyko aintzirara igoko gaitu, baita Gentau lakura ere. Azken honen ondoan da, gainera, Ayous-

eko aterbea dago, 1.982 metroa egoteko aukera eskaintzen duena.

Ehundaka metro batzuk errekatxo bazter batetik jaitsez gero, bideska berria aurki daiteke belarrez eta harkaitzez inguratua. Bersaura iristeko moduan izango gara hortik jarraituz gero, 2.000 metrotik gora ■

ANTZERKI TOPAKETAK DONOSTIAN

VII. Antzerki Topaketak aurrera darrai Printzipal Antzokian. Gaurko honetan Zurriola ikastolako antzerki-taldearen txanda izango da, eta Xabier Mendi-guren Elizegi idazle beasaindarraren «**Harrika**» antzerkilana taularatuko du eguerdiko 12.30etan. Sarrera, 250 pe-zeta (10 libera).

MASKARADAREN ANTZERKIA BASAURIN

Bilboko Maskarada taldeak joan den abenduan estreinatutako Oscar Wilde idazle irlandarraren «**Ernesto izatea-ren garrantzia**» antzerki-lana eskaini-ko du Basauriko Social antzokian. Ilun-tzeko 20.30etan hasiko da emanaldia eta 775 pezeta (30 libera) kostako da sarrera.

MAIATZAK 27 «OTTO PETTE» HIIZKETAGAI

Anjel Lertxundiren «Otto Pette» eleberriri buruzko hizketaldia antolatu du Bilbo Zaharra euskaltegiak. Liburuari buruzko **iritzi, ekarpen eta esal-diak bildu** dira okasio honetarako. Goizeko 11.00etan hasiko da.

LUGARITZ KULTUR ETXEAN ANTZERKIA

Donostiako Lugaritz Kultur Etxean Loiola Antzerki Taldeak «**Ez dezagun trena galdu**» antzerkilana egingo du, arratsaldeko 20.00etan. Sarrera do-hainik da.

KANTALDIA ANDOAINEN

Andoaingo Lasalle Antzokian, **Jabier Muguruzak kantaldia** eskainiko du gaueko 22.30etan.




Maiatzaren 15ean, Deustuko Unibertsitatearen eta Aranzadi Zientzi Elkarteak egindako sinaduraren ondorioz, Euskal Herrian egiten diren Arkeologi eta Historiako ikerketek ofizialtasuna izango dute. Udarako aurrikusitako indusketen artean, historia aurreko ikerketa arkeologikoak egingo dira Erreterria, Mutriku, Ataun, Oñati, Anoeta eta Andoainen; arkeologia historikokoak Zarautz, Astigarraga, Goiherri, Oñati, Albistur eta Getarian; eta lan eremuak Beasain eta Billabonan. Interesatuak Gipuzkoako 42 29 45 telefono zenbakira deitu.

M O K O F I N A

Jatetxeetan ere euskaraz

Jatetxearen izena, euskaraz. Sukaldean denak janariaz ari direnean, espainol/frantses garbian, komandak, kartak eta gainontzeko guztiak bezala. Horrelakoak gara euskaldun jatorrak. Karta eskatu, erdara hutsez emango digute 100etik 90etan eta, gehientsuok eskuinekoari begiratzten diogu. Sakela, patrika, alegia. Baina prezioak ez du bere baitan dena jasotzen. Beharbada, ikasten hasi beharko genuke osotasunean prezioari egokitasuna bilatzen. Faktore asko ditugu jan-edan duguna merke ala garesti den erabakitzen lagunduko dutenak: herria, kokagunea, apainketa, zerbitzu osoa (euskararen trata-




mendua, ene iritzi, funtsezkoa), bodegaren ugaritasuna, garbitasuna, isiltasun ala burrunda, kopuruak, kalitatea, puntua, arintasuna, sasoikotasun edo aldakortasuna dira,

gutxienez, kontuan hartu beharreko alderdiak. Eta ez dut uste exageratzen ari naizenik.

EDORTA AGIRRE

Asteko aholkua

Zergatik ez hasi euskaldunok karta euskaraz eskatzen, exigitzen? Etxean ere --eta ez dohainik, alajainal--bartzertuta gertatu behar? Karta frantsesez, gazteleraz eta ingelesez aurki daiteke Euskal Herriko jatetxe gehientsuenetan. Eta euskaraz zergaitik ez? ■



CID ETA ANDERE XIMENA-REN ISTORIOA BARAKALDON

Silvia Marso eta Andoni Ferreño dira «**Maitasuna pottoka geldiezina da**» antzerki laneko antzezle nagusiak. Gaur eta bihar eskainiko da L. Escobaren obra hau, 20.00etatik aurrera.

MUSKILDIN KONTZERTUA

Baigorriko Iguzki Lore haur abesbatzak kontzertua eskainiko du Muskildiko Elizan. Arballetako Kultur Astearen barruan programatu da ekitaldi hau eta gaueko 21.30etan hasiko da.

ANTZERKI FESTA ZIZURKILEN

Legaleon kafe-antzerki taldeak «**Xigulen isiltasuna**» antzetzuko du Zentro

jubilatuaren tabernan. Gaueko 22.30etan hasiko da emanaldia.

EIBARKO DANTZARI EGUNA

Eibarko Deportibok antolatu du arratsaldeko 19.00etan hasiko den Dantzari Eguna. Bertan, **Kezka dantza taldekoek** kalejira egingo dute aurrera Untzagaraino eta ondoren **dantza ikuskizuna** eskainiko dute **J. B. Gisasola** musika eskolaren laguntzaz.

MAIATZAK
28
Igandea

HAURREN KANTU TXAPELKETA ALTZÜRÜKÜN

Zuberoako Altzürükü herrian Haurren Kantu Txapelketa egingo da. **Bakarka, binaka eta taldeka** arituko dira 30 abeslari Zuberoako finalerdi honetan. 15.30etan hasiko da jaialdia.



Durango Berbaro Euskara Elkarteak ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa antolatu du, Durangaldean bizi den edonori zuzenduta. Hiru sail izango ditu atal bakoitzak: 14 urtetik beharagoentzat; 14-18 urte bitartekoentzat; eta 18 urtetik gorakoentzat. Lanek aurrez argitaratu gabeak izan behar dute, hiru kopia aurkeztu behar dira makinaz eta tarte bikoitzean idatzita. Komikiak koloretakoak nahiz zuri beltzez izan daitezke. Ipuinak, komikiak eta bertsoak ekainaren 5a baino lehen bidali behar dira Durangoko (48.200) 267 postakutxara. Irabazleen izenak ekainaren 22an emango dira ezagutzera eta 40.000 pezeta (1539 libera) emango zaizkie.

E T X E Z U L O A N


Eguzkiaren lehendabiziko printzak

Uda oraindik ez da hasi ere egin, baina urtaro honetako indarrak jotzen du dagoeneko eguzkiak. Eta, ustekabean, eguna kalean, mendian edo hondartzan igaro ondoren, erreta gaudela konturatzaren gara. Zer egin?




Erremedioak ipintzea baino hobea da erredura hauek ekiditea. Horretarako, milaka krema eta olio babesgarririk ditugu merkatuan, azal mota bakoitzarentzat egokitutakoak.

Gerta daiteke, baina, babesgarririk eman ez dugulako, azala gorri-gorria edukitzea dagoeneko. Erredura txiki hauen minak lasaitzeko hiru bide erraz dituzu. Lehendabizikoa, erretako azala ozpinez bustitzea da, pazientziaz eta sarritan. Bigarrena, sodio bikarbonatoa ematea da eta hirugarrena, gainik gabeko esnez bustitako zapiak ipintzea ■



Izozgailuetan beti edukitzen dugu perxil xortaren bat edo beste. Dena den, izozgailuan ere lehortu egiten dira denboraren poderioz eta fresko mantentzeko bi aukera dituzu. Perexila urez betetako urontzi batean buruz beheara ipintzea da daukazun lehenbiziko aukera. Zurtoinak moztu ondoren hostoak ondo txikitu, potu batean gorde, hau ondo itxi eta izozgailuan sartzea bigarrena ■



Egunkariak egunerokotasuna berehala galtzen dute; erabilera ez, ordea. Trapuak ekonomizatzearen alternatiba egokiak dira, batez ere brontzezko objektuak garbitzeko erabiltzean. Aurrera produktu garbitzaileak eta gero limoi erdi batez garbitu. Ondoren, objektua egunkariak igurtzi. Emaitza ezin hobea lortuko duzu ■

TXISTU KONTZERTUA GETXON

Bizkaiko Areetako Eskoletako plazan, **Merindad de Uribeko Txistularien** emanaldia entzuteko parada izango da. Txistu-doinuak barreiatzeari eguerdiko 12.30etan ekingo diote musikariek. Getxo Kultur Elkarteak da ikuskizunaren antolatzailea.

PAILAZOAK GASTEIZKO PRINTZIPAL-EN

Geu Gasteiz euskara elkarteak antolatuta, **Takolo, Pirrutx eta Porrotx pailazoek «Ongi bizi» lana** eskainiko dute hiriburu arabarrek Printzipal Antzokian, arratsaldeko 18.30etan. Barre eta algararako ikuskizuna, sarrera 300 pezetan (11 libera) izango dute haurrek. Helduek haurren bikoitza ordaindu beharko dute.

MAIATZAK
31
asteazkena


«LUCES DE BOHEMIA» DONOSTIAN

**Gaur emango zaio
amaiera Donostiako VII.**

Antzerki Topaketari. Gaurko egunean idazle eta antzerkigile galiziar klasiko baten lana taularatuko da: Ramon Valle-Inclanen «Luces de Bohemia» lana. Lan eskerga honetaz Antzerki Ikasketen Elkartekoak arduratu dire. Eguerdiko 12.30etan hasiko da emanaldia, Donostiako Printzipal Antzokian.

«MAITE» FILMEA GETXON IKUSGAI

Getxo Antzokian, «Maite» filmaren **projekzioa eta foruma** egingo da. Hau izango da 94-95 ikasturterako antolatutako azken emanaldia. Arratsaldeko 19.00etan izango da 200 pezetaren truke.



Maiatzaren 11tik 27ra bitartean, «Partiada Ternuara» izenburua daraman erakusketa bizia prestatu du itsuentzat Gipuzkoako Foru Aldundiaren Untzi Museoa, Gipuzkoako ONCE erakundea eta Donostiako Majisteritza Eskolako ikasleekin batera. Ikusmena dutenak itsuenganako sentiberatasuna lortu eta arazoaz ohartzea litzateke erakusketa honen helburu nagusia eta horregatik begiak estalita egin behar da erakusketako itzulia. XVI. mendean euskal baleuntziak Ternuara egindako bidaia berbizitzeko aukera eskaintzen zaio gerturatzen denari.

O S A S U N A

Eskolako atzerapenen kausak

Noiz esan daiteke ume batek eskolako atzerapena daukela? Bere adinerako behar litzuzkeen gaitasun edo trebetasunak lortzen ez dituenen. Arrazoiak oso desberdinak izan daitezke, baina gurasoek edota irakasleek adi egon behar lukete eskolatzearen hasieratik, sei urterekin (Oinarritzko Hezkuntza Orokorra) edota bederatzihamarrekin agertu baitaitezke aurreneko sintomak. Umeak bere adineko gainerako haurrekiko eta eskolako erritmo normalarekiko duen desfase hori ez bada hasieratik konponetzen, atzerapen hori handituz doa eta honen amaiera eskolako porrota izan daiteke. Garrantzi handikoa da horrexe-

gatik atzerapen hori eragin duten arrazoiak aurkitzea eta umeak maila egokia lor dezan bitartekoak jartzea.

Irakasleekiko harremana oso garrantzitsua da, eta gurasoek etengabe egon behar dute haiekin kontaktuan. Irakasleak izan ohi dira umeak ikasketekin dituen arazoez lehenik konturatzen direnak eta beraiek erakutsiko diete gurasoek arazoak nola gainditu.

Umeak giro egokia behar du, dena den, ikasteko: gela txukun eta argia, zarata gogaikaririk gabe, mahaia, etab. Garrantzi handikoa da, era berean, gurasoek beren seme-alabei laguntza eskaintzea ikasketetan, etxeko lanetan lagunduz, eta ikaskun-



tza-prozesuan zehar aurki ditzaketen zailtasunen inguruan interesa erakutsiz.


Psikologo batengana jo arretirik, komeni da umearen eskolako atzerapen hori justifi-

fika dezaketen bestelako alterazioak baztertzeko, dislexiarik, mintzairaren atzerapenik, ikusmen eta entzumenakatsik ba ote dagoen ikusiz.

JABIER AGIRRE

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Zubiak egiten dituztenak. 2.- Trebetasuna. 3.- Euskal aurritzia. Naizen hau. Ogi. hitz elkarketan. 4.- Abar. Lehena eta azkena. Ezinaren erdian. 5.- Egile atzizkia. Maiz. sarri. 6.- Potasioaren sinbolo kimikoa. Urtaro beroa. Rutenioaren sinbolo kimikoa. Zero. 7.- VII. hilabetea. Bostehun eta bat. 8.- Alderantziz, indioaren sinbolo kimikoa. Hitz grekoa. Askotan. 9.- Jarraitzen ari zaie. Nor; pluralean. 10.- Nirea. Pirinioetako gailur ezaguna.

GOITIK BEHERA: 1.- Propaganda. 2.- Kanale. Toka, zuen. 3.- Itzulia. Utik! Musika nota. 4.- Berrogeita bederatzi. Detektagailua. 5.- Edari alkoholdun. Saiakerak. 6.- Zezen zikiratuak. Kontsonantea. Kasik. 7.- Musika nota. Eromen. 8.- Ala. Istu. Argoiaren sinbolo kimikoa. Bokala. 9.- Aezkoakoa. Toka, dut. 10.- Errepikatuz. gorotza. Noizpaiteko.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kon-tuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Bolatoki
Ikusmena
Sikateak
Tximinoa

7 letra

Arteaga
Azalore
Biluzik
Iraniar

4 letra

Aetz
Amua
Azao
Baoa
Ertz
Ezer
Fika
Ibon
Laka
Ligi
Niri
Opio

Oria
Orri
Otia
Otua
Sara
Ubel
Utik
Zaku
Zama
Ziur
Zori
Zuri


3 letra

Iro
Oro
Pil
Tua

2 letra

An
Ea
It
Ka
Su
Ti
Xa
Ze

ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den pertsonaiaren izena. Bidasoa eskubaloi taldeko entrenatzailearen izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6	7			
8	9	10	11	12	13	14	15	16	17

Ergelkeria	Talde-kiroleko kideak	Bular-mutur	Larrua
Kopeta	Margoa	Kareea egiteko labea	
56	HO	Lohia	
Kalez-kaleko siltzalea	Erdikoak	Fosforoa	5
6		10	
Garoa	Kili-... balantzaka	50	
5	Nauruko autoetan	Bizkaiko herria	17
Tona	Zerbitzaria		
8	Aukera	Izan	4
Haur multzoa			
Toka, zaizu		15	3
	Kasik (bi hitz)	Bat	
	Joan den urtean	9	Modua
Behi zaina		Lehena	Ukatzeko
Ipar-orratza	12	Iridioa	Aluminioa
7		Dardara	
Nor, pluralean	Egur	16	14
		Uranioa	
		Behar	11

Hieroglifikoa

GASTEIZ

Arkumea emango al didak?

Aurreko asteko soluzioak

S	A	L	V	A					
I	R	I	A	R	T	E			
Z	E	O							
Z	I	N	G	I	R	A			
E	F	B	A	I	K	O	R		
A	S	T	A	K	I	R	T	E	N
K	O	A	L	D	A	R	T	E	
V	A	E	L	I	A	S	Z	T	
K	U	E	Z	M	U	E	S		
H	I	E	T	A	K	O	A		
Z	E	A	Z	A	E	I			
S	U	Z	I	R	I	A	O	L	A
N	A	U	O	R	E	N	A	K	

Gurutzegrama

EZKERESKI 1.a. 2. Solisbiglia, 2. Fraibowale
 3. Be. JM. Inman, 4. Okelak, A. O. S. Kacera
 L. G. Ato, Kiriou, 7. Tu. Zapal, Z. S. I.
 Zentruak, 9. Gai. Donna, 10. Izagim, A. B.
 GOTIK BEHERA 1. Serrotegi, 2. Bekana
 O. S. Li. Edo. Zu, 4. Abila, Zu, 6. S.
 Suanakanda, 6. Ak. Kripion, 7. JI. Ato, S.
 Dama Bura, 9. IKA, Lo. Ato, 10. A. Ato

Hieroglifikoa:

Galera

Bosteko ttipiak

- A 1. Alkizer, 2. Kabuz, 3. Ziburu
 4. Zoria, 5. Bazuan
 B 1. Sopela, 2. Pinar, 3. Belceta,
 4. Laitoi, 5. Garata.

Kate hitzak

A	I	A	R	O	L	O	A		
U	K	A	N	E	T	A			
M	E	Z	K	I	T	A	S	O	R
E	R	E	Z	E	Z	K	O	A	K
A	T	R	U	N	A	N	U		
A	R	R	A	O	N	D	U		
N	R	A	A	R	T	O			
E	M	A	K	U	M	E	A	E	T
B	A	T	M	A	N	R	E	N	A
A	R	I	N	K	I	R	A	N	
I	A	I	O	Z	A	I	N		

Bosteko ttipiak

	1		3		5
1		2		4	
	2				
3					
	4				
5					

- Gipuzkoako herria
- Azal gogor
- Kopeta
- Lekua
- Burruntzaliak

Zenbaki bakoitzeko hitz bat eta bera

	1		3		5
1		2		4	
	2				
3					
	4				
5					

- Lapurdiko herria
- Nasak
- Gaitasuna duena
- Forma geometrikoa
- Begi gaineko ile multzo

Mugimendu sozialak bakearekin hara eta hona


1994-EKO urtarrilean Maroñon talde bakezale eta ezker abertzale erradikalaren inguruko taldeen arteko bilera bukatu zenean, hango guztiek, eta baita Bakearen Aldeko Koordinakundekook ere, Euskal Herriaren bitzita sozio-politiko hurbil eta gorabeheratsua une garrantzitsua bizi genuela ohartzen ginen.

Lehenbiziz, jatorri ideologiko oso desberdineko talde sozialak elkarrekin berba egin eta, gure herriak bizi duen biolentziaren arazoa eta heronen irtenbideei buruz jarduteko bildu ginen; hortik, bada, une garrantzitsua bizipen hura. Sinesgaitza dirudien arren, ordura arte itxaron behar izan genuen, komunikabideen presio barik, jarrera zintzoarekin, mahai berberaren inguruan jarri eta egoerari buruzko gure iritzia elkar trukatzeko.

PROZESU luze haren emaitza, ezin izan zitekeen beste modu batera izan, ez zen oso ikusgarria izan, baina talde parte hartzaile guztien iritzi bateratua jasotzearen balio ezeztazina zuen. Ez zen gutxi, eta arrakastatsu agertu zen idazkeran laburbildu zen: «biolentzia adierazleak elkarrizketa bitartekoengatik ordezkatu beharra».

Noski, gero ikusi den moduan, egiaztapen horretatik bakoitzak egin zitzakeen interpretazioak oso anitzak dira; baina bere edukia onartzen zuen edonork ezin go zukeen errefuxatu gatazkaren konponbidean elkarrizketak duen funtsezko balioa.

Maroñotik aurrera, elkarrizketa prozesu honetan parte hartzen genuen taldeok bilerekin jarraitu genuen. 1994ko urtarril hartako akordioa garatzea zen gure helburu handiosoa, posible zen neurrian orduan genion «elkarrizketa» zehaztuz. Gauza praktikoetan aurrera genezakeen frogatu beharra zegoen; talde eta mugimendu sozialek, bakearen bidean gurditik tira genezakeen, zertaz egin behar zen berba



TXEMA URKIJÓ

Bakearen Aldeko Koordinakundeko kidea

proposatu edo zehaztuz, nortzuk egin behar zuten, zer baldintzapean, noraino eta zer helbururekin eta abar.

ERRONKAREN tamainaz, edo utopiaz akaso, jabetuta geunden, beraz gizaixo samarra izan behar zen parte hartzaile guztiek sinatutako horrelako edukia lukeen hipotesiarekin lan egiteko. Alabaina, ezuztean, apirilaren hasieran Altsasun ziren zortzi erakundeetatik zazpi, adostutako elkarrizketaren ezaugarriak onartzean, aurkako errealitatea erakustetik gertu izan zen. Bakearen Aldeko Koordinakundeak testuarekiko desadostasuna erakutsi zuen eta ez zuen bereganatu, gure ustez guk defendatutako oinarriko printzipio batzuekin zuzenean egitzen baitzuen topo, (biolentzia autodeterminazioarekin lotzea edo bakea lorpen politikoetara baldintzatzea).

Une hartatik, elkarrizketa prozesua na-

hasi egin da. Guretzat, biolentziaren analisisen inguruan jende desberdinen artean elkarrizketa soziala praktikan jartzeko aukera paregabea zen; eta batez ere aurrez aurre dagoen gizarte zibila eta iritzi desberdina duenarekin oso tolerantzia ez dena biltzeko aukera, plataforma huts samarra bihurtzen hasi zen, sujeta parte-hartzaileetatik kanpoko estrategiek bere etekinerako erabil zezaketeena. Prozesua, gizarteari zuzentzeko proposamenak egingo dizkion laborategian bihurtzeko tentaldian erortzen ari gara, gure mugimendu sozialaren izaera eta mugimendu sozial guztien helburua izan behar duena ahaztuz: hots, jendearen jokaera eta jardueren aldaketa.

BESTALDE, gainerako taldeek prozesuarekin guztiok elkarrekin jarraitzearen komenigarritasuna onartu arren, kontsentsuaren balioak bere indarra galdu du. Halaber, baten batek, sotilki, ados ez daudenak barik jarraitzea proposatu zuen. Guretzat, bestalde, balio handiagokoa zen ez horren handiosoa baina guztiok onartuko genituen helburuekin lan egitea. Desberdinen arteko kontsentsua izan zen Maroñon gehien goraiatu zen balioa eta, gure ustez, hori da orain galtzen ari dena.

Finean, talde sozialen arteko elkarrizketa une gaitzak iragaten ari dela onartzen dugu, baina beroien behararen komentzimendua azpimarratzen dugu. Gizarte zibila elkarrizketaren balorea bereganatu eta barneratu beharrean dago, ez zentzu dialektikoan bakarrik baita praktikoan ere. Talde sozialen ardura da. Mugimendu sozialen zeregina ez da laborategietako agiri eta burutazioen plazaratzea, funtsean begirune eta zabaltasun handiagorantz eramango duten jardueren pedagogikoak bultzatzea baizik. Hori da gure lana eta lan horregatik besteekiko elkarrizketaren alde egingo dugu.



Ltxura baino gehiago...

FOTOKONPOSATZEA
INPRIMATEGIA

ANTZA

Maisuen Estetik

Industrialdea 1-2 20160 LASARTE-ORIA
Tel: (943) 37 07 38 - 37 15 45 Fax: (943) 36 54 93 - 36 10 48

TXORIA, INOIZ BAINO GORAGO

